



2020

urtekaria

• LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO •

HITZA

www.lea-artibaiaietamutriku.hitza.eus





Uribarren Abaroa
fundazioa ▶ Egoitza
Eguneko Zentroa

www.uribarren.es



94 684 00 55 • 630 988 790

Iñigo de Artieta etorbidea, 2 - 48280 LEKEITIO

(Des)berdin



LARRAITZ IBAIBARRIAGA ETXABURU

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO
HITZAREN ZUZENDARIA

Itxi begiak eta eskatu desio bat: 2020 berri bat. Urtea desberdina izatea, «normaltasun berria» deitu duten hori ez eza-gutzeko.

Oraindik orain, ez da erraza gertatzen ari dena ulertzea, sinistea, barneratzea. Hemen-dik milaka eta milaka kilome-trora, Txinan, Wuhan izeneko hiriburuan atzeman zituzten lehenengo SARS-coV-2 kasuak. 2019ko abendua zen. Handik hiru hilabete eskasera, martxo-aren 11n, Munduko Osasun Erakundeak pandemia mailara igo zuen koronabirus agerraldia.

Hiru egunen buruan, alar-ma egoeran geunden. Eta guz-tion egunerokotasuna, hankaz gora. HITZAko lantaldearen-tzat ere ez dira hilabete errazak izan. Jendeagaz ezin elkartuta, ekintza, kirol eta kultur jardue-rak bertan behera geratuta... lan egiteko erak aldatu behar izan ditugu. Bide berriak eraiki. Telematikoki, erredakziotik, momentuan momentuko egoe-rara eta aukeretara moldatuta

lan egin dugu, eta eskaini digu-zuen laguntza garrantzitsua izan da, inoiz baino garrantzi-tsuagoa. Argazkiak helarazi dizkiguzue, informazioa... Ba-besa eman diguzue. Gaur, inoiz baino gehiago, eskerrik asko bidelagun izan zaituztegun guztioi. Zuon guztion ekarpena ezinbestekoa izan da gure jar-duna aurrera ateratzeko.

Koronabirusari lotutako albisteek bete dituzte hilabete luzeetan egunkaria eta webgune zein sare sozialak. Osasun krisiak inoiz baino ageri-agoan utzi eta areagotu dituen gabezia eta premiei egin diegu lekua artikuluz artikulua, elkar-rrizketaz elkarritzeta. Osasungintza, hezkuntza, zain-tza... horien eskariek bete dituzte orrialde luzeak. Pen-tsiodunen eta langileen borro-kak, emakumeen eskubide urraketek, gazteen eskariek,

pandemiagatik aforoa mugatu dieten edo itxiarazi dituzten negoziok... Egoera zaurgarrian daudenek, eta horiei laguntze-ko prestutasuna eduki dute-nek...

Euskara ere ez da onik atera. Pandemiak gogor astin-du du; gaztelania erabili izan da garrantzitsua zen dena edo ia dena komunikatu, informatu eta jakinarazteko, euskara bigarren mailan utziz. Guk, geurea denari eutsiko diogu; euskara lehen lerroan jartzen jarraituko dugu, egunero-egu-nero izango gara Arigune; izan-go gara Ahobizi; egunero dela-ko euskararen aldia. Erabiltzea baino txerto hoberik ez dagoe-lako!

Eta horrela ailegatuko gara 2021era; HITZAk 18 urte eder beteko dituen urte berrira, agur esatekotan gaudenaren desberdina izateko desioagaz.

Lege Gordailua: BI-2906-03
Egoitza nagusia:
Arretxinaga Etorbidea, 1 • 48270 Markina-Xemein
Telefona: 94-684 44 36. Faxa: 94-684 44 33.
Mutriku. Barrenkale, 19- behe. 943 603 468
E-posta: lea-artibai@hitza.eus
Webgunea: www.lea-artibaiaetamutriku.hitza.eus
Zuzendaria: Larraitz Ibaibarriga Etxaburu.
Kudeatzailea: Idurre Arrazola Astoreka.
Publizitatea: Maribi Fernandez 600 57 14 26.
mfernandez@hitza.eus

Testuak: 11barri / Lore Bengoetxea
Diseinua eta maketazioa: 11barri / Eli Azpiazu
Argazkiak: Lea-Artibai eta Mutriku HITZA | Alberto Gorritiberea | Gaizka Muñoz Etxebarria | Plugin Estudioa | Euskadi Lagunkoia | Yaalah elkarte | Markina-Xemeingo Udala | Yolanda Eizaguirre/Klik Klak | Ondarroako Udala | Eguzki | Gizaburuagako Udala | Atabaka | MGA | Eguzki talde ekologista | Irekia | Twitter | Radixu Irratia | Lekittarrok zaindu | Potxuak martxan | Eskubide sozialak karta | Ongi Etorri errefuixatuak | Lekeitioko Udala | Berriatuko txirrindulari taldea | Ondarroako Ezker Abertzalea | Musikaia musika eskola | Lekitto Bedarra | Parkeko gunia | Euskaltzaindia | Sarek a | Leartiker | LAB | Debegea | Jose Pablo Arriaga | Haira Rivero Arrieta | Nerea Arrieta | Susa Literatura | Natalia Campos | Piztiak | Nabil | Zinegoak | OHZ | Galarrena Kultur Elkartea | Jai Alai News | Incursed | Durangoko Azoka | tvarios 23hondakinak | Karpanta

ERREDAKZIOA Mutriku - Ondarroa - Gizaburuaga
Nerea Bedialauneta Alkorta 607 49 01 63
ondarroa@hitza.eus; mutriku@hitza.eus
Etxebarria - Lekeitioko - Markina-Xemein
Eider Mugartegi Urizarbarrena 607 49 01 60
markina-xemein@hitza.eus; lekeitioko@hitza.eus
Aulesti - Berriatua - Ziortza-Bolibar
Asier Alkorta Bengoetxea
607 49 01 67 / lea-artibai@hitza.eus
Munitibar - Amoroto - Ispaster - Mendexa
Aintzina Monasterio Maguregi
647 35 53 32 / ea@hitza.eus

Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.L.ko kideak
eta Lea-Artibai eta Mutriku beste 59 eragile



2020AN HITZA DIRUZ LAGUNDU DUTEN UDALAK:

Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitioko, Markina-Xemein, Munitibar, Mutriku, Ondarroa eta Ziortza-Bolibar.



Hitza-k **Bai Euskarari**



zerbitzua eta
lana euskaraz



2020 URTEKARIA



→ Aurkibidea

2020, hilez hil.

Urtarrila.	06
Otsaila.	10
Martxoa.	15
Apirila.	19
Maiatza.	22
Ekaina.	26
Uztaila.	30
Abuztua.	34
Iraila.	36
Urria.	40
Azaroa.	44
Abendua.	48

Euskara.

50

Kultura.

52

Politika.

54

Ekonomia.

56

Kirola.

58

2020 Zenbakietan.

59

● LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO ●



JARRAI GAITZAZU SAREAN ERE:

www.lea-artibaiaetamutriku.hitza.eus

Lea-Artibai eta Mutriku HITZA (orrialdea)

@leakohitza

ERAGILEEN KONPROMISOA



2020an,
Lea-Artibai
eta Mutrikuko eragileek
Hitzari bultzada ematen jarraitu
dute. Gainera, aurten ere, entitate
hauek Hitza diruz laguntzeko konpromisoa
hartu dute: Cikautxo eta Kide enpresek, Kai-Alde
elkartea, Uhagon kulturguneak, Ipargorri elkarteak
eta Eusko Alkartasunak.

ESKERRIK ASKO gure **59** eragileei

• LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU KO •

HITZA

egiten laguntzeagatik!

ABARKA ANTZERKI TAL.
AITTITTA MAKURRA
TXARANGA
AITTITTA TXIKI
AIXEBE
AKARREGI PILOTA TAL.
AMOROTOKO
HERRI IKASTETXEA
ARTELAN ELKARTEA
ARTIBAI MENDIGOI. T.
AULESTIKO URREGARAI
HERRI ESKOLA
AULESTIKO
MUGIMENDU FEMINISTA

AURRERA MENDI TALD.
BATERATZE GURASO E.
BEKOBENTA GURASOAK
BERA KRUIZ IKASTOLA
BURDINOLA KOOP.
BURUMENDI MENDI T.
CIKAUTXO
EGUZKI
EIKA
ETXEBARRIKO MANUELA
ZUBIZARRETA ESKOLA
FAGOR ARRASATE
GARATEA ZABALLA F.
GURE AMETSA TALDEA

IPARGORRI
ISUNTZA
KAI ALDE
KATUBALTZ TALDEA
KIDE KOOPERATIBA
KRESALA ELKARTEA
LEA-ARTIBAI IKASTETX.
LEA-ARTIBAICO AEK
LEALDE S.COOP.
LEKEITIOKO EA
LEKEITIO ESKOLA PUBL.

MAKONAK ELKARTEA
MARKINA BHI INSTIT.
MARKINAKO ESKU
PILOTA TALDEA
MARKINAKO ZESTA
PUNTA TALDEA
MARKINA-XEMEINGO
BERTSO ESKOLA
MUTRIKUKO BERTSO
ESKOLA
MUTRIKU BHI
NAHI TA EZIN ELKARTEA
OKAMIKA
INDUSTRIALDEA

ONDARROAKO
HISTORIAZALEAK
ONDARROA BHI
LEKEITIO BHI
RADIXU IRRATIA
R. M. AZKUE IKASTOLA
SEIJO PINTURA LANAK
TALAIPE ELKARTEA
TXIMISTA ATLETISMO T.
UGARTEBURU CB
UHAGON KULTUR ELK.

URZABAL GURASO ELK.
UXU ONDARROAKO
EMAKUMEEN TALD.
WC KOMUNS
XEMEIN AISIALDI TALDEA
ZALDUPE ESKOLA PUBL.
ZUBI-ZAHAR IKASTOLA
EGUNSENTIA

mila
milesker!

Zu Lea-Artibain, AEK ere bai



Lekeitio AEK euskaltegia

Alea, 7
Tel: 94 648 28 69 - 607 596 343
lekeitio@aek.eus

Markina-Xemein AEK euskaltegia

Urbilarte, 11 - 1. esk
Tel: 94 616 75 97 - 607 596 261
markina@aek.eus

Ondarroa AEK euskaltegia

Erribera 9, 2. (Kofradia Zaharra)
Tel: 94 613 40 21 - 607 536 147
ondarroa@aek.eus

EUSKARA-IKASTAROAK

**Eman
izena**

- MAILA GUZTIAK: A1-A2-B1/1.HE-B2/2.HE-C1/3.HE/EGA-C2/4.HE
- OHIKO IKASTAROAK: aste barruan eta zapatuetan
- IKASTARO BEREZIAK: gurasoak, etorkinak, merkataria, ostalariak...
- ON-LINE IKASTAROAK
- Udalaren diru laguntza

eta berbalagunekin,
MINTZAPRAKTIKA!



korrika

www.aek.eus



Kultura Batzordeak sormen tailerra antolatu zuen

ZIORTZA-BOLIBAR // Kultura Batzordeak antolatuta, sormen tailerra eman zuten 4 urtetik gorakoentzat, udazkenean martxan jarritako bidetari jarraipena emanda. Sormen Lantegiko bi kidek gidatu zuten ekimena: Nerea Unanua Otxoantesanak —argazkian— eta Jone Goikoetxea Ibaibarriagak. Baliabideak emanda, sorkuntzarako aukerak azaldu zizkieten umeei.



Kultur Galak txistulariei aitortza egin zien

MUTRIKU // Mutrikuko V. Kultur Galak kultur eragileen lana aintzakotzat hartu nahi izan zuen. Batetik, bakarkako lana; eta, bestetik, talde lana. Era horretara, Marisa Martinez antzerkigilearen eta Txistu Taldearen ibilbide luzea omendu nahi izan zituen.

Martinezek banakako saria jaso zuen, «antzerkigintzari ezezik, herriko kulturari eskaini dion guztia» aitortu nahian; eta Txistu Taldeak, berriz, talde saria jaso zuen —argazkian— «txistuarien tradizioari eutsi eta herriko kaleak kantuz alaitzen dituelako».



Bost urte orientazio psikologikoa eskaintzen

LEA-ARTIBAI // 2020an, Amankomunazgoaren orientazio psikologiko zerbitzuak bost urte bete zituen. «Eskaintza garrantzitsua da gurasoentzat, prebentzioan eta heziketa prozesuan laguntzen dielako», adierazi zuen. Urtarrilean, 2019ko datuak eman zituzten: 43 erabiltzaile eduki zituen.



Turismo bulegoa lekuz aldatzeko asmotan

LEKEITIO // Udalak turismo bulegoa lekuz aldatzeko nahia agertu zuen. Hain zuzen ere, leku aproposa zela eta, administrazioak turismo bulegoa Eliz Atea kaleko gasolindegiz zaharraren eraikinerara pasatzeko proposamena izan zuen esku artean urte hasieran.

ZEDARRI ZUZENENKO SALMENTA
ALTZARIAK NEURRIRA

altzariak + koltxoidenda

Arropain auzoa, 16
ISPASTER
zedarri-ispaster@hotmail.com
94-684 13 63 • 659 53 52 70

GRECO
ARRE
VELASCO

arrain eta
itsaski freskuak

ZUMARAN

ONDO
PASA
JAIK

Abaroa, 9 behea | Antiaguako ama, 1
94 684 04 29 | 94 684 27 68
L E K E I T I O

Carrefour express

Janerik
Zaton

Tel.: 94 683 17 83
Ibaiondo, 5 - Ondarroa



Jaialdi solidarioako parte-hartzaileek talde argazkia atera zuten.

Mendibarren frontoia bete egin zen jaialdi solidarioan

BERRIATUA //

Jendetza batu zen Aspanovas elkartearen aldeko ekimenean

Arrakasta lortu zuen I. Zesta-Punta jaialdi solidarioak. Sarrerekin eta sariekin, 7.561,70 euro batu zituzten Aspanovas Bizkaiako Minbizidun Haurren Gurasoen Elkarteari laguntzeko.

Balorazio positiboa egin zuten ekimenaren antolatzailleek. Lea-Artibaiko herrietako bizilagunak batze-

ko helburua zeukaten, eta erraz bete zuten asmoa, deialdiari erantzun ederra eman zioten-eta.

17:00etan umeen kinielekin hasi zuten jaialdia, eta 23:00ak arte iraun zuen.

Zesta-punta eskola zein Aspanovas elkarte oso pozik agertu ziren emaitzekin; batetik, uste baino diru gehiago batu zutelako; eta bestetik, «giro on-ona» sortu zelako.

Antolatzailleek eskerrak eman zizkieten parte hartzaileei zein Berriatuko taberna eta merkatuei, haien laguntzagaz lortu zituztelako sariak, hain

zuzen ere, hainbat futbol talderen kamisetak eta otzarak; guztira, 21 sari.

Ume minbizidunak

Minbizidun haurrak izan ziren zesta jaialdiaren protagonistak. Euri eta euren senideei laguntzeko elkar-tu ziren ehunka lagun, eta zesta eskolako umeek keinua egiteko aprobexatu zuten. Partiden tartean, batzuk zapi arrosekin irten ziren eta beste batzuek bertsoak bota zituzten. Dantzariak, gainera, heroi jantzita irten ziren, minbizidun haurren kemena irudikatzen.

Belaunaldien arteko elkarlanari aitortza egin zioten

ISPASTER// Eusko Jaurlaritzak saritu egin zuen Ispasterko belaunaldien arteko proiektua, eta eredugarritzat jo. Elkarrengandik ikasteko gogoz sortutako ekimena da, eta hiru kolektibok parte hartzen dute: Bizi Ispasterko Nagusiak Elkarteak, Ispasterko Eskolak eta Ispasterko Guraso Elkarteak.



Botikin zerbitzua berreskuratu zuten, etenda egon ostean

AULESTI// Hilabete batzuetako etenaren ostean, Aulestik botikin zerbitzua berreskuratu zuen. Lekeitioko Txakartegi farmaziak hartu zuen ardurara. Jone Antsotegi alkateak esan zuen lorpen handia zela Aulestin botikina bermatu ahal izatea astelehenetik ostiralera bitartean.



A | HK

AKARREGI HAGIN KLINIKA

Juan Jose Akarregi Loyola dokt.
Mediku estomatologoa
Kolegiatu zb. 573

688 82 68 31 acarreguclinicadental@gmail.com
Paskual Abaroa Etorbidea 26 bis-behea. LEKEITIO

Domingo Ugartetxea, 3
94- 616 57 27
udala@ziortza-bolibar.com
www.ziortza-bolibar.com

ZIORTZA-BOLIBARREN
euskaraz bizi gara!

UEMA
EUSKAL ERROMA
FEDERAL WINDERS
FEDERAL WINDERS
FEDERAL WINDERS



Frontoiaren 60. urteurrena, jai giroan

MUNITIBAR // Frontoiak 60 urte bete zituela eta, urtarilaren 17an pilota jaialdi berezia egin zuten, Lea Ibarra Pilota Elkartearen ekimenez. Hainbat kategoritako pilotariak batu, eta ikuskizuna eskaini zuten. Era horretara nabarmendu izan izan zuten frontoiaren garrantzia. Emaitzak emaitza, antolatzailerik giroa nabarmendu zuten, eta, horrez gain, bertoko eta inguruetakoko pilotarien jokoaz gozatzeko egon zen aukera.



Jatekoa batu zuten Saharara eramateko

ONDARROA // Sahararekiko elkartasun taldeen koordinakudearen barruan, Sahararen Aldeko 16. Euskal Karabanarako janari bilketa egin zuten Ondarroako Yaalah elkarteak Udalaren laguntzagaz. Ikastetxeetan eta dendetan kutxak ipini zituen, ondarrutarrei ekarpena egiteko aukera emateko.



Bandak Arreitunandia omendu zuten

MUTRIKU // Kutsu berezia eduki zuten Nazareno kontzertuak urteroko hitzorduan, bandako kide bat gogoan hartu zutelako: Juan Arreitunandia. Taldeko perkusio jotzailea izana, astebete lehenago hil zen, eta ekitaldia baliatu zuten hura omendu eta senideei plaka bat emateko. Bost kanta eskaini zituzten; eta amaitzeko, San Sebastian Egunaren bezpera zenez, San Sebastian martxa jo zuten.



Ikasketa gelan wifi zerbitzua jarri zuten

MARKINA-XEMEIN // Markina-Xemeingo Udalaren eta Lea-Artibai Amankomunazgoaren akordioari esker, wifia jarri zuten herriko ikasketa gelan, Patrokua jauregian. Gogorazti zutenez, gela erabiltzeko eskaera udaletxean egin behar zen.

ZABALA-MT

Gardotza Industrialdea, 1
48710 BERRIATUA
Apdo. 84
48710 ONDARROA
Tel. 94-683 1112
Faxa: 94-683 3242
zabalamt@zabalamt.com
www.zabalamt.com

/ INSTALAZIO ELEKTRIKOA
/ TELEKOMUNIKAZIOA
/ MANTENIMENDU INDUSTRIALA
/ ENERGIA BERRIZTAGARRIEN
GESTIO ETA INSTALAKUNTZA

**UK URKAN
TALDEA**

Antzomendi industriagunea, 9.pab. • Galdona bidea • 20830 MUTRIKU
Tel. 943 603934 / Faxa. 943 607147 / urkan@urkan.net

► www.urkan.net ◀

Urrutia
Margo lanak



678 384 938
urrutiamargoak@gmail.com



GI-638 errepideko Alkoleako tunela zabaldu zuten

MUTRIKU // Gipuzkoako Foru Aldundiak urtarrilaren 21ean zabaldu zuen Alkoleako tunela, 106 metroko luzerakoa, Mutriku eta Deba artean. Lan guztiak amaituta egon ez arren, irekitzea erabaki zuen. «Bidegorria bukatzea falta da», adierazi zuen Bide

Azpiegiturarako diputatu Aintzane Oiarbidek, lanak bisitatzean. Harekin batera izan ziren Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia eta Mutrikuko Udaleko hainbat ordezkari. Adierazi zutenenez, tunela lanen puntu kritikoena izan zen.



Uniformeak estreinatu zituzten

ONDARROA // Herrizaingo Sailaren aholkuak jarraituta, Ondarroako Udalak Udaltzaingoaren arropa berri zuten. Jaurilaritzaren asmoa udaltzainen arropak berdintzea zen, erraz identifikatzeko.



Landare babestua, suntsituta

LEKEITIO // Eguzki ekologista taldeak Santa Kataina pasealekuko landare bat suntsitu izana leporatu zion udalari; Lavatera arboarea. Gogoratu zuenez, landare mehatxatua da Euskal Herrian; oso urria.

Bizipozaren dokumentala aurkeztu zuten

ONDARROA // Bizipoza elkar-tea ezagutzera eman zuten, ikus-entzunezkoen bidez: *Gure bizipoza, guztiona* dokumentala eta dokuwebak. Eki-menak jende asko erakarri zuten, eta boluntarioen sarea indartzeko balio izan zuten. Arnasa elkarteko kide ondarrutarrek ibili ziren aurkezpena antolatzen.



Kultur etxeko ikasgela, ordu gehiagotan zabalik

LEKEITIO // Kultur etxeko ikasgelaren ordutegia zabaldu egin zuten. Ordutegi berria hauxe zen: 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 21:00etara. Gainera, eguerdian erabiltzeko aukera eman zuten. Horrez gain, bigarren ikasgela bat egokitu zuten, jende asko batzen zenerako.



eskola eta
bulegoetarako materiala

URBIETA
PAPERTEGIA

Artolaba, 4 behea
94 624 38 32
LEKEITIO



URBASA
GARBIKETAK

Telf. 94 616 83 32



665 21 26 89 (laberna)
94-616 63 03 (bulegoa)
Xemein etorbidea, 10
MARKINA-XEMEIN

Denboraren Bankua proiektua martxan jarri zuten

LEKEITIO // Udalak Denboraren Bankua aurkeztu zuen, elkarri laguntzeko sarea; hau da, zerbitzuak, ezagutzak eta jarduerak heritarren artean trukatzeko sistema. Adierazi zutenenez, herritarren denbora trukatzeko sistema bat zen, baina bide batez, bigarren funtzio bat ere eman zioten. Izan ere, aurreikusten zuten adin eta jatorri ezberdinetako herritarren harremanean ere eragingo zuen. «Eskaini edo hartzen diren jardueraz gain, beste esperientzia batzuk eza- gutzeko aukera emango du, beste pertsona batzuegan- dik ezaupenak jaso eta ha- rremanak sortu», esan zuten.



Olatuen energia plantak bere errekorra hautsi zuten

MUTRIKU // Energiaren Euskal Erakundeak jakitera eman zutenenez, olatu energiaren plantak marka berria ezarri zuen argindar ekoizpenari zegokionez. 2011n martxan jarri zenetik, 2 Gigawat sortu ditu, beste edozein

plantak baino gehiago. «Kopuru hori apala da sorkuntza elektrikoko beste teknologia batzuekin alderatuta, baina orain arte kopu- ru hori ez du beste olatu planta batek lortu», adierazi zuten, datuen berri ematean.



Bertsolariek girotuta, txarriboda egin zuten

GIZABURUAGA // Otsailaren 14an txarriboda egin zuten Gizaburuagako Herriko Tabernan, bertsolariek girotuta: Ander Elortegi natxituarrak eta Xabat Gallettebeitia lekeitiarrak. Deialdiari erantzunez, 35 lagun batu ziren, «giro ezin hobean», antolatzaileen arabera.



103. urtebetetzea, ospakizun artean

ONDARROA // Maria Eigurenek 103 urte bete zituen, eta omenaldia egin zioten Eguneko Zentroan. Ekitaldian parte hartu zuten haren senideek, Eguneko Zentroko profesiona- lek eta udaleko hainbat ordezkari. Horrez gain, modu bir- tualean, Zaldupeko ikasleek bertsoa abestu zioten.



IGELTSEROTZA
ELEKTRIZITATEA
ETXE-ISOLAMENDUAK

UGARTEBURU, C.B.

Zumatzeta kalea 2 - 1. D - 48280 LEKEITIO Tel. 605 71 72 74



FISIOTERAPIA ZENTROA
— TXOMIN TXURRUKA —

AUTO ISTRIPUAK • ERREUMATOLOGIA • TENDINITISAK
KIROL LESIOAK • MASAIA • BIZKARREKO ETA BURUKO MINAK

Gabonetan ere oparitu osasuna! OPARI TXARTELAK

Artibai 12, behea Markina-Xemein Tel.: 94 616 60 32

Zaldibarko zabortegiko gertaera argitzeko exijitu zuten

MARKINA-XEMEIN //

Luizian bi lagun desagertu ziren, tartean Alberto Sololuze herriko bizilaguna

Zaldibarko zabortegian lubizia izan zen, otsailaren 6an, eta bi lagun desagertu ziren: Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze, azken hori, Markina-Xemeingo bizilaguna.

Horren haritik, mobilizazioak hasi zituzten Markina-Xemeinen, gertaerak argitzeko exijitzeko. Otsailaren 10ean, ehunka herritar elkarretaratu ziren Goiko Portalean. Bi langileak ateratzea lehentasuna zela azpimarratu zuten txalo eta txistu artean, eta enpresari eta arduradun politikoei eskatu zieten informazio zehatza eta gardena ematea, zabortegiaren kutsaduraren eragina aztertzea osasunean zein ingurunean, eta larrialdi egoera martxan ipintzea.

Horregaz batera, markina-xemeindarrek Zaldibarko manifestazioan parte hartu zuten, otsailaren 15ean. Eta otsailaren 20 arratsaldean,



Markina-Xemeingo manifestazioa.

lubizitik hamabost egun pasa zirela gogoraraziz, eskualde mailako manifestazioa egin zuten Markina-Xemeinen, *Zaldibar argitu, orain!* lelotzat hartuta.

Argibide eske

Goiko Portaletik abiatu zen, Sololuzeren senideak eta eskualdeko eragileak pankarta atzean zirela. Haiekin batera, eskualdeko herritar ugarik gertaera argitzeko

eskaera egin zuten ozen. Manifestariei ulergaitza iruditzen zitzaientzen, batetik, Zaldibarko gertakariak 14 egun igarota langileen berririk ez izatea eta, bestetik, arduradunak gaiaren inguruan isilik egotea. «Ez dago ezer mingarri, injustu eta salagarriagorik hitzak eta erantzunak espero dituzunaren isiltasuna baino. Zaldibarkoa ez da bigarren mailako arazoa», esan zuten.

Ekai Lersundi gogoan hartu zuten ekitaldi jendetsuan

ONDARROA// Otsailaren 15ean bi urte bete ziren Ekai Lersundi Martinez gazte ondarrutarra hil zela. Naizen elkartearen ekimenez, omenaldia egin zioten Ondarroako Itsasaurre plazan, haren omenezko oroigarriaren aurrean. Elkarrekin gogorarazi zuen gazte transexualen artean suizidio kasu asko daudela.



XIV. mendeko txanpona aurkitu zuten Garraitz irlan

LEKEITIO// Atabaka kultur elkarrekin XIV. mendeko txanpon bat aurkitu zuen Garraitz irlan. Txanpona 2019ko udako indusketetan agertu zen, eta 2020. urtearen hasieran datatu zion Aranzadi zientzia elkarteak numanistika sailak. «1335 eta 1383 urteen artekoa da», adierazi zuen.





TXAIFER
ERAIKUNTZAK, S.L.

Teillatuak, fatxadak,
etxe barruko konponketak,
Igeltseritzako lanak orokorrean.
ANDAMIOAK DITUGU

605 71 18 84 || 608 87 79 12

txaifer@yahoo.es / Letraukua 1-behea LEKEITIO

Torrealday

AHOLKULARITZA

Carlos Gangoiti 28 Tel.: 94 627 00 36 GERNIKA	Askatasun bidea 24- 2E Tel.: 94 688 46 08 BERMEO	Sta.Katalina, 1.A Tel.: 94 684 26 75 LEKEITIO	Artibai, 18 Tel.: 94 683 29 75 ONDARROA
---	--	---	---

▶ www.torrealday.es ◀



Akerbeltzek bertso kabareta eskaini zuen

MARKINA-XEMEIN // 100 urtera arteko atzera jauzia egin zuen otsailaren 1ean Akerbeltz gaztetxeak, eta, horrela, 20ko hamarkadako kabaret bihurtu zen Markina-Xemeingo Gazte Asanbladaren urteroko bertso saio berezirako. «20ko hamarkada zoriontsuaren erotasun, poztasun eta fribolitate garaia» oroitu zuten, eta gaur egunekoagaz alderatu zuten, bertsoz bertso gizartea zertan aldatu den ikusteko.



Oinezkoak lehenetsi zituzten herrigunean

MUNITIBAR // Oinezkoak aintzan hartuta, herrigunean errepidearen zati biak batu eta irisgarritasuna hobetu zuen udalak. Lanen inguruko azalpenak emateko, batzar irekia egin zuten. «Orain arteko hirigintza lanek ibilgailuei eman diete lehentasuna», gogorarazi zuen Arkaitz Goikoetxea alkateak.



Ikusminagaz estreinatu zuten skateparka

ETXEBARRIA // Jende ugari batu zen kirol gunearen inaugurazioan, Victor Medrano Bilboko skater eta Espainiako txapel-dunaren eta haren bi taldekideren erakustaldia ikusteko. Azpiegitura berrian kirol asko praktikatu ahal zirela nabarmendu zuten, hain zuzen ere, bizikleta, scooter, skate eta patinak. Kontu handiz ibiltzeko aholkatu zuten. «Garrantzitsua ez da gauza zailak egitea, baizik eta ondo egitea; minik hartu gabe».



Mutriku-Deba bidegorria zabaldu zuten

MUTRIKU // Otsailaren 21ean, Mutriku eta Deba arteko bidegorria zabaldu zuten. «Bidea oinezkoentzat arriskurik gabe zabaldu ahal dugu», esan zuten Gipuzkoako Foru Aldundiko iturriek. Egun berean ireki behar zuten GI-638 errepidea ere, baina ezin izan zuten, lanak atzeratuta zihoazelako.

Zure etorkizuna landuz
OINARRIZKO HEZIKETA PROFESIONALA

SUKALDARITZA **MANTENIMENDUA**

Peñascal  **kooperaliba**

94 616 96 52
Karesaga Industriegunea 33. eraikina
48270 Markina-Xemein

 **Rayssa Costa**
ilepointegia

94-657 24 18
Inaki Deuna, 55
48700 ONDARROA
@rayssailleapaindegia_c

porru
anaiak
margolariak

657 771 028
615 767 564
artakuk@euskalnet.net



Zuhaitz, Landare eta Baserri azoka, jendetsua

MARKINA-XEMEIN // Ondo joan ziren salmentak Markina-Xemeingo XVIII. Zuhaitz, Landare eta Baserri Tresnerien Azokan, Lea-Artibaiko Landa Garapen elkarteak eta Markina-Xemeingo Udalak adierazi zuten, nahiz eta euriaren erruz nahi beste

bezero batu ez. Zelaiaren goiko aldean jarri zituzten 11 mintegietako postuak, eta batez ere eguerdian lortu zuten jendearen arreta. Hala ere, zer erosi argi zeukatenek lehenengo ordua aukeratu zuten «piezarik dotoreenak» etxera eramateko.



Radixu Irratia, 48 ordu uhinetan

ONDARROA // Ondarroako Radixu Irratiak, urteroko hitzordua betez, 48 orduko saioa eskaini zuen, etenik barik. Herriko irrati libreak urteurrena ospatzeko daukan era da. 2020an 29 urte bete ditu.



Herriko historia liburuan jasota

BERRIATUA // 1974an, Berriatua Ondarroa-gaz anexionatu zen, eta 1983an desanexionatu. Urteok gogoan, liburua idatzi zuten Juan Luis eta Jose Antonio Eizagirre anaiek: *Berriatua, ahaztu behar ez den historia*.



Ibilaldiko ekarpenei esker hainbat lan egin ahal izan ziren

LEKEITIO // Ibilaldi egunean eta ondorengo egunetan Euskal Herriko hainbat txokotatik jasotako ekarpenei esker, Azkue ikastolak bi gune egokitu ahal izan zituen: «Alde batetik, DBHn espazioa berarrantolatu beharra zegoen, metodologia berrira egokitze-ko, eta, bestetik, 0-2 urteko umeentzako espazio egokia diseinatuko da; mugimendu askerako aproposagoa», azaldu zuten ikastolan.



Mijoako isurketa salatu zuen Eguzki talde ekologistak

MUTRIKU // Eguzki talde ekologistak salatu zuenez, Mijoako errekan beste isurketa bat gertatu zen otsailaren 4an, industriguneko araztegiak arazo izan zuela eta. Gogorarazi zuenez, Ura agentziak dio errekan uren kalitatea «ezin txarragoa» dela.

SANEAMIENTOS
ondarroa s.l.

Erreforma osoak • Berrantolaketa
Lubakak • Garapenak • Geroak

Billegia • Bukarea
almacen@saneamientosondarroa.com
Errenberia Auzoa, 2/g | Ondarroa | 946632040
946131018 | Fax: 946632351

Erakundeak • Denda
expedite@saneamientosondarroa.com
Artibide 22. Bidea | Ondarroa | Tel: 946630049

Seijo
PINTURA LANAK

629 315 011
626 774 342

LEKEITIO
Eusebio M. Azkue
(Trinkete aurrean)
sejopinturalanak@gmail.com

Geurean dago
aurkitu nahi duzun hori!

geureanbai.eus

Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko ZERBITZU GIDA
EKOIZLEAK, DENDAK, MERKATARIAK, ENPRESAK, OSTALARITZA...



Zure enpresa edo zerbitzua webgune honetan agertzeko interesa baduzu,
deitu: 600 57 14 26 telefonora edo idatzi publilea@hitza.eus

www.amoroto.eus
Elexalde auzoa, 1 • Amoroto
94-684 25 49



Klinika
ALDAY



943 60 39 53

San Agustin, 5 behea
MUTRIKU

klinikaaldays@gmail.com

- INPLANTEAK
- ORTODONTZIA
- PERIODONTZIA
- PROTESIAK
- ODONTOLOGIA
- ESTETIKOA



Martxoaren 8aren aldarria, eskualde osora zabalik

ONDARROA // Martxoaren 8an, emakumeek kaleak hartu zituzten. Kolore morea gainerakoei nagusitu zitzaizen, eta egun horretan eta gainerakoetan kalera irteteko milaka arrazoi zeudela esan zuten ozen. Horrela, matxismoagaz amaitzeko premia eta desioa

adierazi zuten. Eskualdeko manifestazioa egin zuten, Ondarroan, eta *Antolatu indarrak, batu borroka feministara* pankarta buruan zutela egin zuten Etxelilatik Alamedarainoko bidea, Andrabandaren erritmoekin eta turrin hotsekin.



Chavezi gorazarre egin zioten

ZIORTZA-BOLIBAR // Ekitaldi baten bidez, Hugo Chavez Venezuelako presidentea gogoan hartu zuten, haren heriotzaren urteurrenean, udalaren ekimenez. Estatu buruaren ekarpena nabarmendu nahi izan zuten.



Elkarlananean saretzen jarraituz

ONDARROA // Ondarroa, Mutriku eta Debako gazte asanbladetak 50 gazte inguru batu ziren, hain zuzen ere, ezagutzak partekatu, ideiak eta esperientziak trukatu eta harremanak sendotzeko.



Toponimoen mapa eguneratu eta digitalizatu zuten

MUNITIBAR // Udalerriko toponimoen mapa eguneratu zuen Munitibarko Udalak. Euskara batzordekoek bertoko toponimia batu eta berreskuratu zutela azaldu zuen Arkaitz Goikoetxea alkatea. Bestalde, bisore digitala osatu zuten; larrialdi egoeretan baliabide lagungarria, alkatearen esanetan. «Kale izendegi ofiziala eta toponimia bat egin gabe egon dira orain arte», azaldu zuen.



Letraukuako etxeen proiektua, bertan behera

LEKEITIO // Udalak Letraukuako apartamentu proiektua albo batera uztea erabaki zuen, ez zelako bideragarria, azpiko mendigune karstikokoan Armintxe koba dagoela eta. «Erantzukizunez jokatu dugu, gizarte ondarea babes-teko», adierazi zuen.



**OGITEGIA
PLAZA**

ATXABAL, 4
LEKEITIO
94 684 02 07

**Margoak,
dekorazioa eta
eraikuntza
materiala**


ONDARRO
Kolonietan

94-613 41 99
San Inazio 49 behea-ONDARROA



- Igeltserotza lanak
- Fatxadak
- Erreformak
- SATE

patxiigeltseru
ondarroa **679 819 506**
patximartin76@gmail.com



Harpidedunak ezinbestekoak zarete gure, denon proiektu honek aurrera egin dezan;
Lea-Artibaik eta Mutriku egunero eta euskaraz informazioa jasotzen jarrai dezaten.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu harpidedunoi,
eta harpidedun egitera animatu oraindik harpidedun ez zaretenok. Eskerrik asko!!!

PROIEKTUA INDARTZEN, GARATZEN ETA HOBETZEN JARRAITZEKO HAUSPOA ZARETE!!

Hitzakidea

50€
urtean

Proiektua indartzen lagunduko dut
+
Prentsa eskaintza osoa PDF
formatuan izango dut
+
Abentailak, deskontuak eta
zerbitzuak eskuratuko ditut

Hitzakide harpideduna

77€
urtean

Proiektua indartzen lagunduko dut
+
Prentsa eskaintza osoa etxean jasoko
dut eta PDF formatuan ere izango dut
+
Abentailak, deskontuak eta zerbitzuak
eskuratuko ditut

Hitzakide iragarlea

77€
urtean

Proiektua indartzen lagunduko dut
+
Prentsa eskaintza osoa jasoko dut eta
PDF formatuan ere izango dut
+
Publizitate tratu bereziak jasoko ditut
+
Abentailak, deskontuak eta zerbitzuak
eskuratuko ditut

94-684 44 36 · harpidetza@hitza.eus · lea-artibaletamutriku.hitza.eus

ESKUONAK

AUTOKONPONKETAK

Confortauto
espezialistak
pneumatiko,
mekanika,
txapa eta
pinturan.



- Mekanika orokorra
- Txapa eta pintura
- Auto garbiketa
- Zure autoa nahi duzun tokian
hartzera eta uzten dugu.

Pol. Gardotza, 9 - BERRIATUA
Tlf: 946 633 359 - 679 631 386
Emaila: eskuonak@gmail.com



1958tik ZARAUTZ
ALTZARIAK

94 684 06 53
94 625 85 78

LEKEITIO • GERNIKA



- Era guztietako altzariak
- Sofak eta osagarriak, tradizionalak zein azken tendentzietakoak
- Diselnu eta aurrekontuak konpromisorik gabe



Tel. 94-606 18 95
Arana tar Sabin, 2
48700 ONDARROA

ORDUTEGIA
Asteartetik barikura 9:00-19:00
Zapatuetan 8:00 - 14:00

ALARMA EGOERA EZARRI ZUTEN

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU //

Martxoaren 14 gauean, alarma egoera ezarri zuten estatu osoan, Koronabirusaren pandemiaren aurrean. Ordutik aurrera, konfinamendua agindu zen, mugatuta egon zen pertsonen zirkulazioa, eta udalak ere neurriak hartzen hasi ziren, osasun zaintzagaz lotuta.

Era horretara, kutsadura saihesteko helburuz, erabakiak hartzen hasi ziren, bata bestearen atzetik. Adibidez, eraikin publikoak zarratu zituzten, kaleak desinfektatu eta nagusien egoitzetako bisitak eta aurrez aurreko zerbitzuak eten. Elkarlana ere bilatu zuten. Lea bailarako herriek, kasurako, mahaia eratu zuten, koronabirusari aurre egiteko pausoak elkarrekin adostu nahirik.



Gizarte laguntzarako bideak martxan jarrita

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Lea-Artibaiko Amankomunazgoak etxex etxeko zerbitzua egokitu zuen, erabiltzaile bakoitzaren egoera kontuan hartuta eta bakardadean bizi direnengan arreta jarrita; eta auzolanean, boluntario sareak osatu zituzten, herririk herri, Gurutze Gorriarekin batera beharizan handienak artatzeko. Beste alde batetik, hainbat erakundek presazko neurriak eskatu zituzten kartzeletan, presoek egoeraz kezkatutik.



Informazioaren aldeko apustua

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA egunkariak lanean jarraitzea erabaki zuen, larrialdi egoeran prentsa zerbitzua oinarritzkoa dela ulertuta. Era horretara, segi egin zuen herritarrei informazio eguneratua ematen, ohiko euskarrietatik: egunkaria, webgunea eta sare sozialak.



euskaraz eta berdintasunean bizi gara!






94-683 36 72
ondarroa.eus
udalbarriak.eus








IKASTETXEAK, ITXITA

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU //

Martxoaren 12an, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxe guztietan irakaskuntzaren jardun presentziala eteteko agindu zuten, COVID-19aren zabalkundea geldiarazi asmoz, hamabost egunez.

Neurriak maila guztietako ikasleei eragin zien.



Lantegiak ixteko eskatu zuten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA // Langileen osasun baldintzak bermatzearen alde egin zuten sindikatuak, eta lantegiak ixteko eskatu. LABek esan zuen lehentasuna langileen osasun eskubideak bermatzea zela, eta ELAk eskatu zuen geldiarazteko jardura ez-funtsezkoak. Arrantza sektorean ere hartu ziren neurriak: bakarrik berdela arrantzatzea adostu zuten. Hain zuzen ere, Ondarroan baxurako ontzi bat zigilatu zuten, COVID-19 kasu bat baieztatu ostean.



Hileta prozeduren protokoloa ezarri zen

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Herritarren zein ehorztetxeko langileen segurtasuna bermatu nahirik, hainbat neurri ezarri ziren. Alde batetik, hilbeilak, elizkizunak eta hileta zibilak debekatu egin zituzten, eremu pribatuan zein publikoan egin, eta hilerrietan ere aintzat hartu beharrekoak argitu ziren.

Bizkaia
Sortaldeko
Industrialdea

eskualdearen
garapenerako
giltza

**PABILIOI
BERRIAK
AUKERAN**

INFORMAZIO GEHINGORAKO
94-684 22 11
www.sprilur.eus
bizkaia.sortaldeko@sprilur.eus

sukaldeko altzariak | ateak | leihoak | etab...

Info
94 683 02 29
Iñaki Deuna 29 / Ondarroa
osaerreformak@gmail.com

OSQ
aroztegia

mantxua

taberna jatetxea • Beaskokalea, 24
LEKEITIO • 94-465 33 49



Babesteko materialak egiteari ekin zioten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Lanbide Heziketako zentroak eta hainbat enpresa babesteko materialak egiten aritu ziren osasun arloko profesionalentzat zein herritarrentzat. Adibideak ugari izan ziren: Leartiker zentro teknologikoan prebentzio materiala sortzen ibili ziren 3D inprimagai-

luen bidez, Ondarroako institutuak babes pantailak egin zituen, Lekeitioko ikastolako gurasoek karkasak egin zituzten 3D inprimagailuetan, eta, udalak eskatuta, Ondarroan hainbat lagun aritu ziren maskarak egiten, besteak beste, herriko boluntario sareko kideentzat.



Etiket, pentsio duinen alde

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Koronabirusaren aurkako neurriei jarraituz, asteroko protestak etxeko balkoietatik eta leihoetatik egitea erabaki zuten pentsiodunen elkarteak. Argazkian, Ondarroako etxe bat.



Aste Santuan, kontrol gehiago

LEKEITIO // Herri sarreran kontrolak areagotu zituzten Aste Santuan, kanpoko sar ez zedin. Izan ere, jende askok bigarren etxebizitza dauka Lekeition, eta konfinamendua salto egin zezakeela aurreikusi zuten.

Familia guztiek janaria edukitzeko ekimenak sortu ziren

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Elikagaien bankuek antzeztan zuten familia premiadunak gehitu egin zirela pandemiaren eraginez, besteak beste, eskoletako jantoki zerbitzua eten zelako. Bide batez, martxoko datuak eman zituzten ezagutzera: Markina-Xemeinen 67 familia lagundu zituzten, Lekeition 76, Ondarroan 62 eta Mutrikun 33. Gurutze Gorriarekin, udalekin eta boluntarioekin elkarlanean, jatekoa banatu zuten herririk herri, segurtasun neurriak zainduta. Lekeitioko Elikagaien Bankuak, esate baterako, gogor eta gogotsu egin zuen lan. Taldeak elikagaiak dirua lortzeko hainbat ekimen bertan behera utzi behar izan zituen, eta horren aurrean hainbat elkartek euren bat egin eta diruz lagundu zieten, besteak beste, Amandarri triatloi taldeak eta Artzabal Surf taldeak.



MUTRIKUN
urte osoan izango dugu
EUSKARALDIA

Adingabeen konfinamendua, «partzialki arinduta»

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU //

Apirilaren azken astean, Espainiako Ministroen Kontseiluak kalera irteteko baimena eman zien 14 urtera arteko umeei eta nerabeei, baina ez paseatzeko, baizik eta etxeo zereginetan helduei laguntzeko, hau da, mandatuak egiteko.



50 ohe jarri zituzten Gurutze Gorriaren eskura

LEKEITIO // Udalak 50 ohe erosi eta Gurutze Gorriaren esku jarri zituen Covid-19aren aurrean egon zitezkeen premiei erantzuteko, horren beharrean zeudela jakin zuenean. «Ohe horiek ez dira izango herrirako. Gehien behar dituzten lekuan eta behar dutenean

erabiliko dituzte. Beraz, edozein larrialditan erabiltzeko eta egoera sozialak laguntzeko izango dira», zehaztu zuen Koldo Goitia alkateak. Koronabirusak premia berriak eragin zituela eta, erakunde humanitarioak Lekeition bulegoa zabaldu zuen.



Azokak zabaldu zituzten

LEA-ARTIBAI // Neurri zorrotzekin, Ondarroako eta Markina-Xemeingo azokak zabaldu zituzten, betiko egunetan: Ondarroakoa martitzen eta zapatu goizetan eta Markina-Xemeingoa eguen goizetan. Zentzu horretan, Ondarroako alkateak bertoko kontsumoa bultzatzeko nahia adierazi zuen.



60 egun Zaldibarko zabortegiko lur jausitik

MARKINA-XEMEIN // Apirilaren 6an hil bi bete ziren Zaldibarko zabortegia amildu eta Joakin Beltran eta Alberto Sololuze bertako langileak azpian harrapatu zituenetik, eta gaia «berriro erdigunera» ekartzeko, herriko balkoiak eta leihoak apaintzeko deia egin zen, baita burrunbada antolatu ere Euskal Herri mailan.



GARBIKETA ZERBITZUAK

**94-684 27 51
608 87 49 60**

Okamikako industrialdea GIZABURUAGA





Radixu irratiak Uhinen txertoa irratiaioa.

Itxialdi aurreko notak kontuan hartzeko konpromisoa

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Hezkuntza Sailak iragarri zuenez, ikasturte amaieran kalifikazioei buruzko erabakiak hartzeko garaian, itxialdi aurreko ebaluazioak hartuko zituzten oinarritzat azken kalifikazioetarako, ikasturte akademiko «berezia» izan zelako. Hirugarren ebaluaziorako bi aukera egongo zirela esan zuten: batetik, hirugarren ebaluazio espezifiko bat; eta bestetik, amaierako ebaluazio integratu bat.

Kirol eta kultur jarduerak eskaintzak areagotu ziren

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Kultur eta kirol eskaintza ugari eskaini ziren Internetaren bitartez

Kultur eta kirol ikuskizunak bertan behera geratu ziren, baina Internet-ez baliatuta hainbat eduki kontsumitzeko dinamikak abian jarri ziren, indartsu, Lea-Artibai eta Mutriku mailan. Adibide askoren artean, kirolaren atalean, kiroldegi birtualak prestatu zituzten Ondarroan eta

Mutrikun, eta kultur atalean ekimen ugari jarri ziren martxan, adibidez, Lektitarrok zaindu kulturak YouTubeko kanala. Multzo berean, bertoko taldeen antzezlanak eta dokumentalak ikusteko aukera eman zen Internet bidez, eta hitzaldiak, ikastaroak eta zuzeneko musika saioak ere eskaini zituzten, borondatez, talde eta norbanako ugari. Aste Santuko oporraldia arindu nahirik, udal batzuek programazioa antolatu zuten sarean, esate baterako, Markina-Xemeinek eta Ondarroak. Azken herri horretako pro-

gramazioaren barruan, *Uhinen Txertoa* Radixu irratiak saioa ere barneratu zuten, konfinamenduko ekitaldirik jarraituenetakoa. Lehiaketa bereziak ere ikusi ziren, tarteka, #OndarruNeureBalkoitzik argazki egitasmoa eta Egunean behin Euskal Herri mailako lehiaketa, aulestiarren artean jokatzeko moldatua.

Era berean, UEMAk etxeko egonaldia arintzeko proposamenak egin zituen, euskarazko produktuen eskaintza zabalaren berri emenez.



Oporrak bakean programa bertan behera geratu zen

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Larrialdi egoera mundu mailakoa zela eta, Fronte Polisiarioaren ordezkariak jakinarazi zuen haur sahararren udako harrera programa bertan behera uztea erabaki zutela. «Erabakirik onena» izan zela esan zuten, «nahiz eta mingarria izan».

2020an egin dogun antzera,
datorrena be egingo dogu batera


Urte barri on!

ZAINDU ZAITEZ,
ELKAR ZAINDU DAGIGUNI



Ekonomia suspertzeko ekimenak abian jarri zituzten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Tokian tokiko merkatarik elkarrekin elkarlanean, udalek bertoko kontsumoa bultzatu eta ekonomia suspertzeko ekimenak abiatu zituzten. Beste alde batetik, 560 eurora arteko laguntza zuzenak gorde zituzten Berriatua, Etxebarria, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa eta Ziortza-Bolibarreko negozio txikiei laguntzeko, guztira 310.500 euro. Izan ere, ekonomiak kezka handia eragin zuen. Horren erakusle, Lekeitioko plazan Lekittarrok Zaindu sare herritarrak deitu zuen elkarretaratzea, herri ekonomia eta tokiko garapenaren aldeko ekitaldian. Institutuzioak turismoari begira ere jarri ziren: Bizkaiko Foru Aldundiak 70.000 euro bideratu zituen sektore hori sustatzera.



Hondartzara joateko irizpideak argitu nahian

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Hondartza denboraldia noiz hasi zehaztu zuten, ekainaren 15ean Bizkaian eta uztailaren 1ean Gipuzkoan, eta erabiltzeko irizpideak zehaztu zituzten. Besteak beste, distantziak gordetzea eta kirola praktikatzeko ordutegi mugak errespetatzea eskatu zuten.



Ilkasturte amaieran, bueltari buruz bueltaka

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Eusko Jaurlaritzak ikastetxeei «autonomia» eman zien itzulera zehazteko, «beharrak erreparatuta eta irizpide pedagogikoak aintzat hartuta». Bestalde, sare publikoko hezkuntzako langileei ikastetxetara bueltatzeko agindua eman zien, modu mailakatuan.

MERTXE
FRUTA-DENDA



P. Abaroa 45-LEKEITIO
94 684 27 94



Antiguako Ama J - ONDARROA

INMOBILIARIA LOPEZ

Pili López Arritola

Apalioa kalea, 22
94 624 37 77 / 689 582 582
pili@inmobiliarialopez.net
48260 LEKEITIO

www.inmobiliarialopez.net

IZAYFER
ASESORIA-AMOLKULARITZA

Agencia IZAYFER AMOLKULARITZA

Fiskal - Laborala
Kontabilitate - Enpresa
Bereita - Asesoria

Agencia Solarte, 11 - 48260 Lekeitio
Tel. 94 624 73 05 - Fax: 94 684 31 64



Kalera irteteko ordutegiak ezarri ziren jendea ez pilatzeko

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU//

Hil hasieran hiru ordutegi ezarri ziren, eta ordu tarteak ezabatu ziren amaierarako

Etxetik irteteko baimena eman zen maiatzaren hasieran, baina hiru ordutegiren barruan, kalean momentu berean jende asko ez batzeko.

Kezka horri erantzunez, udal batzuek neurriak hartu zituzten, esate baterako, Ondarroak. Han, herrigunea zazpi gunetan

banatu zuten, eta bakoitzaren bizitokiaren arabera, bata edo beste erabiltzea eskatu. Hil amaierarako, EAE bigarren fasera pasatu zen, eta, horrenbestez, ordu tarteak ezabatu ziren eta lurralde barruan mugitzeko aukera eman zuten. Neurri hori desagokitzat jo zuten herri mugakideek, Ondarroak eta Mutrikuk, kasu.

Maskarak

Espainiako Gobernuak maskararen erabileraren gaineko arauak argitaratu zituen. Haren arabera, 6 urtetik gorako guztiak mas-

kara erabiltzera derrigortuta zeuden, distantzia soziala mantendu ezin zen kasuetan. Horren aurrean, Markina-Xemeingo Udalak, adibidez, maskarak banatu zituen 65 urtetik gorakoen artean, eta Etxebarriko EH Bilduk 800 maskara erabiligarri erostea eskatu zion udalari. Zerbitzu publikoak ere egoera berrira moldatzen hasi ziren. Ondarroako igogailu publikoak, horren adibide. Martxotik zarratuta egon ostean, maiatzaren hasieran astean behin irekitzera pasa ziren, eta amaierarako gauez baino ez zeuden zarratuta.



Itsasertzak maskarekin bete zirela salatu zuten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Eguzki talde ekologistak ohartarazi zuen eskularruek eta maskarek ekosistema kalteu zezaketela eta «edonon utzita», ibaiak eta itsasertzak mehatxatzen zirela. Horren aurrean, babes ekipoak egoki erabiltzeko eskatu zuen.



Zaldibarko lur jausia ikerketapean jarri zuen Europak

MARKINA-XEMEIN // Europako Batzordeak esan zuen aztertu egingo zuela Zaldibarko lur jausian zer gertatu zen, hau da, zergatik amildu ziren milaka tona hondakin, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran langileak azpian utzita.

Maguregi Iturgintza

Iturgintza orokorra - Berogailuak - Pellets berogailuak eta goldarak - Energia berriztagarriak

Aldamiz Etxebarria, 1 behea - LEKEITIO
Tel. / Faxa: 94 684 00 22 • maguregi_iturgintza@yahoo.es

MARGO-LAN C.B.

- PINTURA APAINGARRIA
- PINTURA INDUSTRIALA
- FATXADAK, KOMUNITATEAK...
- ZORU LEUNKETA ETA BERNIZTAKETA

655 70 53 26 / 610 33 53 83
margolan15@gmail.com

Kaminazpi, 53 behea esk. ONDARROA



Liburutegiak zerbitzua ematen hasi ziren

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Liburuak berriro maileguan ematen hasi ziren udal liburutegiak. Markina-Xemeingoak, esate baterako, etxerik etxe. Bien bitartean, konfinamendua arintzen laguntzeko ekimenak gehitu ziren, adibidez, Lekeitioko Nabil taldearen musika emanaldia Internet-etik edo Markina-Xemeingo musikariena, balkoietan, Uhagon kultur gunearen ekimenez. Ondarroan—argazkian—, irakurzaleak batu ziren.



Eup! irratiak uhinetarako bidea hartu zuen

MARKINA-XEMEIN // Uhineta salto egiteko gogoia erakutsi zuen Eup! irratiak, ekoizpen propioagaz eta Arrosa sareko edukiekin, eta horretarako crowdfunding kanpaina abiarazi zuen. Itsulapikoa plataformaren bitartez, egoerak eraginda ezinezkoa zutelako kale dinamikaren bidez diru iturriak lortzea.



Pentsiodunen kalean egin zuten protesta

ONDARROA // Bi hilabeteko etenaldiaren ostean, pentsiodunen asteroko elkarretaratzeak Ondarroako Alamedara bueltatu ziren. Batu zirenek gutxienezko bi metroko distantzia zaindu eta maskara soinean eraman behar izan zuten, pentsio duinak eta bidezkoak eskatzeko. Ondarrutarrak pozik agertu ziren lortu zuten erantzunagaz, 200 lagun inguru batu ziren eta.



Bisitak hartzeko prestatu zituzten egoitzak

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Adinekoen egoitzak bisitetarako egokitzen hasi ziren, tartean, Lekeitioko Uribarren Abaroa. Han desinfekzio kabinak ipini zituzten. Lehenengoak izan ziren sistema hori erabiltzen, gainera. Ondarroan, Zilarrezko Antxoa Artibai egoitzako langileentzat izan zen.

Leartibai
Garapen Agentzia

Gure eskualdearen garapen ekonomikoaren alde!

- Enpresen sorrera
- Ekintzaileritza kultura
- Merkataritza
- Zerbitzu enpresak
- Turismoa
- Udal proiektuak
- Enplegua

www.leartibai.com www.leartibaiturismo.com @leartibai

MARKINA-XEMEIN
Lea Artibai Berrikuntza Gunea
Xemein Etorbidea 12. A - 3. solairua
94 616 90 88

LEKEITIO
Sabino Arana 14
94 603 4211

ONDARROA
Karnalete kalea 21g
94 603 3495

LAVROK, S.L.
IGELTSERITZA
636 150 729 • 629 561 332
Gardotza Industrialdea, P 21 Eraikina • BERRIATUA

Laura's
SAN IGNAZIO 8 BEHEA
ONDARROA (BIZKAIA)
94-609 97 04

ABEL KRISTALDEGIA	IBAI ONDO, 2	94 683 32 69
ARANTZA ESTETIKA	KANTOPE, 8	680 54 63 40
ASESORIA TORREALDAY	ARTIBAI, 18	94 683 29 75
BADIOLA BURDINDEGIA	ARTIBAI, 8	94 683 22 07
BENGOETXEA KIROLAK	ITXAS AURRE, 5 - 6	94 683 20 02
BRONTXE	SAN IGNAZIO, 39	94 683 41 44
DOMEKA ELEKTROTRESNAK	SAN IGNAZIO, 23	94 683 21 51
DRA OSAGARRIAK	ERRIBERA, 18	94 683 01 63
DRA JOLASAK	NASA, 7	94 683 00 36
DUOMO	ERRIBERA, 36	94 683 10 82
EFFECTOS NAVALES FRIAS	ANTIGUAKO AMA, 2	94 683 24 57
EGUZKI HARATEGIA	ERRIBERA, 30	94 683 03 47
FARMAZIA OSA LARRUZZEA	SABIN ARANA, 2	94 683 07 90
FIDESLAN AHOLKULARITZA	ANTIGUAKO AMA, 11	94 683 32 08
GANBARA	SAN IGNAZIO, 26	94 683 15 14
GILI-GILI	NASA, 17	605 72 97 33
GCIARA	ERRIBERA, 26	94 683 42 02
GOIKO TORRE	KALEANDI, 5	94 683 07 93
GOE CINETAKOAK	SAN IGNAZIO, 53	94 683 03 62
IDADA ESTETIKA	SABIN ARANA, 7	94 683 08 38
IDIAKEZ LIBURUDENDA	SAN IGNAZIO, 24	94 683 01 88
ITUARTE CINETAKOAK	KANTOPE, 4	94 683 04 23
KLIK-KLAK	SAN IGNAZIO, 22	94 683 43 54
KORPION	SABIN ARANA, 12	94 683 10 64
KURIKE	ANTIGUAKO AMA, 4	94 683 65 91
LAVIN	SAN IGNAZIO, 24	94 683 08 29
LAURA'S ARROPADENDA	SAN IGNAZIO, 8	94 609 97 04
LIDE	KANTOPE, 2	94 683 01 84
LORAK ESTHER	ARTABIDE, 24	94 683 09 60
MAPFRE	ANTIGUAKO AMA, 9	94 683 03 89
MARTA ILEAPAINDEGIA	KAFEATZE PASEALEKUA, 11	94 683 16 42
MGS, ASEGURUAK	ANTIGUAKO AMA, 4	94 683 40 71
N MASKOTEN ILEAPAINDEGIA eta DENDA	SAN IGNAZIO, 37	94 656 94 61
NEREA ETXEA	ERRIBERA, 9	94 683 26 78
ONDAR ILEAPAINDEGIA	SAN IGNAZIO, 33	94 683 03 95
PASTOR HARATEGIA	ERRIBERA, 34	94 683 07 78
REPARACIONES OMAR	SAN IGNAZIO, 20	611 34 11 34
RESILIAN	HARATEGI KALEA, 1	678 69 06 51
SUSTRAI BELARDENDA	IPARRAGIRRE, 6	94 683 07 62
TXO	SAN IGNAZIO, 26	94 683 28 82
TIKI TAKA	ANTIGUAKO AMA, 5	94 683 40 98
TXIST SUPERMERKATUA	SABIN ARANA, 9	94 683 02 25
URROSOLO BITXIAK	NASA, 19	94 683 07 99
VIAJES ECUADOR BIDAIAK	SABIN ARANA, 4	94 683 23 54
VITORIA OPTIKA	ERRIBERA, 16	94 683 41 38
ZALOA	SAN IGNAZIO, 4	94 683 41 85
ZATON-CARREFOUR	IBAI ONDO, 5	94 683 17 83
ZURKULU	ANTIGUAKO AMA, 2	94 683 42 66
TABERNA-JATETXEAK		
ALAI	ERRIBERA, 10	94 683 00 23
ANAITASUNA	ERRIBERA, 9	643 77 15 27
ANDIK ONA	ERRIBERA, 20	94 683 14 88
APALLU	ERRIBERA, 30	694 46 65 48
BADIS	SAN IGNAZIO, 29A	94 683 44 79
BOGA BOGA	ITSASAUURRE, 7	691 14 50 39
BEIKOZINI TABERNA-JATETXEA	IPARRAGIRRE, 10	94 683 28 99
ERRETEGI JOXE MANUEL	SABIN ARANA, 23	94 683 01 04
GAZTEDI	ITXAS AURRE, 1	645 00 94 88
GELASIO	ERRIBERA, 12	94 682 55 79
IDOLA	ITXAS AURRE, 2	94 683 00 13
KIRRIKI	NASA, 3	94 606 18 07
MOBY DICK	ARRIGORRI S/N	94 683 00 18
RESTAURANT SUTARGI JATETXEA	NASA, 11	94 683 22 58
SIRI MIRI	ERRIBERA, 9	639 22 32 00

zatozte®

Zure etxetik gertu

kantoipe 3 beheka // ☎ 94 683 17 27 // ✉ zatozte2@gmail.com // 



Danonartin ekimenak jateko bilketa berezia egin zuen

ONDARROA // Danonartin elkarteko kideek 1.655 kilo elikagai batu zituzten ekainaren 19an eta 20an, deialdi berezian, premiadunentzat; «kopuru ederra», antolatzaileen esanetan, hiru hilabeteko banaketa ziurtatzen zielako. Zortzi denden kanpoaldean jarri ziren, eta esker oneko agertu ziren erantzunagaz.



Sexu eta Genero Askatasunaren aldarria, kalera

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Harrotasunaren koloreak ikusi ziren Sexu eta Genero Askatasunaren Aldeko Nazioarteko Egunean, ekainaren 28an. Markina-Xemeinen Zinegoakeko film laburrak proiektatu zituzten, eta kaleak apaindu; Mutriku eta On-

darroan modura. Elkarretaratzeak deitu zituzten Lekeition —argazkian—, Markina-Xemeinen eta Mutriku, eta ostadarraren koloreko bandera erakutsi zuten hainbatean, Markina-Xemeingo udaletxean eta Ondarroako kofradian, kasu.



Bizkaian, hondartza dinamikoen alde

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Hondartzak egoera berrira egokitu zituzten, besteak beste, sarrera-irteerak seinalizatuta, pasu batzuk zarratuta eta beste batzuk moldatuta. Bizkaian dinamikoak bihurtu ziren, eta horrekin erabilera arautu, marearen arabera. Gipuzkoakoei, oster, ez zieten izaera hori eman.



Zerbitzu publikoen aldeko mobilizazioak

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Euskal Herriko Eskubide Sozialen kartak deituta, zerbitzu publikoen aldeko mobilizazioak deitu zituzten Mutriku —argazkian— eta Ondarroan, *Publikoa eta funtsezkoa zaindu, aberastasuna banatuz. Lehenik bizitza!* lelopean.

Lagunkor



> Amaia Agirre Egia

info+ 94 683 18 02
info@lagunkor.eus
Artabide, 12 / Ondarroa

> Aholkularitza
>> Inmobiliaria

San Inazio, 7 behea
ONDARROA
94-641 38 35

Egidazu kaia, z/g Nabaldea pabilloia
14 postakutxa ONDARROA
tf.: 94 683 18 51
faxa: 94 683 18 76
Mekanika eta untzi tailerra
administracion@itxaslautailerra.com



Markina-Xemeingo Udal liburutegia.

Elkarteak zabaltzen hasi ziren, eta ordutegiak lehengoratzen

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU //

Hirugarren fasean sartuta, elkarteak eta zerbitzuak ohiko dinamikara bueltatu ziren, babesa oinarri

Konfinamendua arintzeko hirugarren fasean sartu zen Hego EuskalHerria. Garraio publikoak %100eko edukierarekin eta maiztasunarekin jarri ziren martxan, eta 20 pertsonako taldeak elkartzeko baimena eman zuten.

Testuinguru horretan, hainbat jarduera berriro mar-

txan jarri ziren, besteak beste, hondakin berezien bilketa zerbitzua, jubilatuen elkarteak, udal ikastegiak eta liburutegiak, eta udaletako arreta zerbitzuak ere ohiko ordutegira bueltatu ziren. Hori bai: kasu guztietan, segurtasun distantzia gordetzea eskatzen zen, eta horrelakorik egin ezin zenean, maskarak erabiltzea.

Teknologiaren laguntza

Bestalde, Interneti probetxua ateratzen jarraitu zuten. Adibidez, Lekeitioko KZ gunea hitzaldiak eskaintzen hasi zen aukera horre-

taz baliatuta. Mugikorrei buruzko bederatzi saio prestatu zituzten, eta, besteak beste, zuzeneko emisioak eta birusei aurre egiteko teknikak izan zituzten hizpide. Baliabide bera oinarri, Geoparkeak, estreinako, geoibilbideak prestatu zituen PDF formatu interaktiboan, mugikorrean erabili ahal izateko. Mutrikurako proposamen bat zen; ez bakarra. Izan ere, herriguneko zuhaitzen ibilbide birtuala ere jarri zuen eskura. Testuinguru berean, osasun larrialdiak eraginda, abuztuan Ondarroako Plazagain jantokia ez ipintzea erabaki zen.



Lurraldebus autobus hibridoak erabiltzen hasi zen

MUTRIKU // Euskotrenek bigarren belaunaldiko sei autobus hibrido erosi zituen Mallabia-Ondarroa eta Sorluze-Ondarroa lineetarako. «Osagarri guztien elektrifikazioa handia denez, motor termikoaren deskonexioa posible da eragiketa askotan, batez ere hiri barruan. Ondorioz, nabarmen murrizten dira emisioak eta kutsadura akustikoa», azaldu zuten.

Berdintasunerako I.V Planari ekin zioten eztabaida zabaldua

LEKEITIO // IV. Berdintasun Plana egiten hasi zen Lekeitioko Udala, eta horretarako herritarren iritzia jaso nahi izan izan zuen. Era horretara, momentuko egoeraren diagnostikoa egin zuen, talde dinamikien bitartez, eta hirugarren planean oinarrituta. Hiru galdetegi prestatu zituen, bata herritarrentzat, bestea elkarteentzat eta hirugarrena udal langileentzat.

LEA-ARTIBAI eta MUTRIKUN

KALITATEZKO
Euskal
Irakaskuntza
Publikoa



Amorotoko Eskola



Berriatuako HI



Urregarai Herri Eskola Aulesti



Ispasterko Eskola



Goizeko Izarra Mutriku



Lekeitioko Eskola Publikoa



Mutriku BHI



Ondarroa BHI



Arrazakeriaren aurka elkartu ziren

MARKINA-XEMEIN// Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeak antolatu-ta, elkarretaratzea egin zuten arrazakeriaren eta faxismoaren aurka. «Euskal Herrian oraindik ere arrazismoa bizirik dagoela esan nahi izan dugu», adierazi zuten. Ekimena Munduko Arrozak ospakizunaren baitan prestatu zuten. Hain zuzen ere, horri esker, Nikaragua, Senegal eta Euskal Herriko bizilagunak batu eta batak bestarena probatu ahal izan zuten.



Talentua sustatzeko bekak eman zituzten

MARKINA-XEMEIN// Herritarren gaitasun edo ahalmen bereziak saritzeko helburuz, Talentua Sustatzeko Bekak eman zituen udalak. Bederatzi beka eman zituen udalak, guztira, 5.000 euro. Bekadunen artean kirolariak, musikariak, dantzariak eta koo-preatibistak zeuden.



Kriminalitate zantzuak aurkitu zituzten

MARKINA-XEMEIN// Ertzaintzak kriminalitate zantzuak atze-man zituen Zaldibarko zaborteziaren kudeaketan, Vocento taldeko egunkariak aditzera eman zuten. Poliziaren txosten batean oinarritzen ziren hori esateko. Zabortezi behera erori izana kudeaketa akatsekin lotzen zuen agiriak, eta garraiolarien artean zabortezi «zuloa» bezala ezaguna zela, «zabor mota guztiak hartzen zituelako, gainbegiratu barik».



Maskara berrerabilgarriak, denen eskura

ETXEBARRIA// Udalak 800 maskara erosi eta banatu zituen herritarren artean. «Babes gaitasun ziurtagiria daukate, eta berrerabilgarriak dira, hondakin gutxiago sortzeko», azaldu zuten. Materiala buzoirik buzoi banatu zuten, gutunazal batean, etxe bakoitzeko bizilagun kopurua kontuan hartuta».



✉ info@leartik.eus

☎ 94 616 90 02



BATXILERGOA



www.leartik.eus

LANBIDE HEZIKETA

COVID19aren aurrean
Erantzukizunez jokatu



**ZAINDU
SEGURTASUN
TARTEA**



**MASKARA
ERABILI**



**ESKUAK
GARBITU**

Denon artean lortuko dugu!

lekeitio.eus



**lekeitio
udala**



Denboraren bankuak ibilbidea antolatu zuen herritik

LEKEITIO // Uztailaren 28an, Lekeitioko Denboraren Bankuak herria ezagutzeko ibilbidea prestatu zuen, Kutur Exetik San Juan ermitara. Bidean, Dominken komentua, Uriarte jauregia, Usotegi herritarren ortua eta Zubieta bisitu zituzten, besteak beste.



Maskarak, derrigorrezkoak espazio publikoan ere

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Foku berrien agerraldiaren aurrean, uztailaren 16tik aurrera derrigortu egin zuten maskarak erabiltzea, espazio zarratuetan zein publikoetan, pertsonen arteko distantzia edozein izanda ere, espazio berean beste pertsona batzue-

kin elkartzetik balego. Era berean, hondartzetan eta igerilekuetan ere maskara ezinbestean erabili behar zen. Hori bai: kentzeko baimena egongo zela aurrerratu zuten etzatean, esertzean edo bainatzean, Jatetxeak eta tabernak salbuetsi zituzten.



Zaldibarko arduradunak atxilotu zituzten

MARKINA-XEMEIN // Zaldibarko zabortegiko jabea eta kudeatzaileak atxilotu zituzten, eta Zaldibar Argitu Plataformak pozik azaldu zen. «Epaiketa martxan dagoela adierazten digu», esan zuten. Zabortegiaren inguruan bi ikerketa ireki ziren, eta horietako batek lotuta zeuden atxiloketak.



Ibilgailu pisutsuen joan-etorria arautu zuten

GIZABURUAGA // Udalak hasierako onespina eman zion bere ardurapeko auzobideetatik ibilgailu handiak pasatzeko ordenantzari, kalteak ekidin nahirik, esate baterako, harrobietako materialak edo lurra lekuz aldatzean edo basoko egurra eramatean.

Eraikuntzak
Kortabitarte, s.l.

Santa Katalina, 1A
tf.: 94 684 08 52
faxa: 94 684 26 78
LEKEITIO

MOTA GUZTIETAKO ERAIKUNTZAK

solariuma

Dermatologikoki testatua
AZALAREN
ARAZOENTZAKO:

nubea
NUBEA %100 begetala
PUREST %100 organikoa
purest
Naturally beautiful

josune
ileapaindegia

94 603 61 17
artabide 17 ondarroa
martitzenetik barikura: 9:00-13:00/15:00-19:00
zapatuetan: 8:00-14:00



Hondakinak birziklatzeko kamioia, Aulestin.

Birziklapen tasek goranzko joeran jarraitu zuten

LEA IBARRA //

Errefusa 148 tonatik 84 tonara pasazen, eta %43,2 birziklatu zen

Lea Ibarra Udal Mankomunazgoak 2019ko uztailean jarri zuen martxan zabor bilketa Lea Ibarrean. Urtebetera, jendearen erantzuna egokia izan zela baloratu zuen.

Europako Batasunaren erronka birziklatze tasa

%60ra igotzea da, eta hori lortzeko «bide onetik» doa zela esan zuten Mankomunazgoan. Izan ere, errefusa 148 tonakoa izatetik 84 tonakoa izatera pasatu zen, eta birziklapen tasak igo egin ziren. Ia bikoiztu egin zen batu eta bigarren erabilera eman zitzaion olio, paper eta kartoi kopurua. 2019ko lehen hiruhilekoan batutako hondakin kopuru orokorretik %83,6 zen errefusa, eta %16,5 birziklatzen zen. 2020an, epe berean, %56,8 izan zen

errefusa, eta birziklatu zena %43,2.

Esfortzua eskertuz

Erakundeak herritarren erantzun ona txalotu zuen, eta bide beretik jarraitzeko eskatu zien. «Guk birziklapena bideratu ahal dugu, baina esfortzua norberak egin behar du etxean», adierazi zuen. Bestalde, gogoratu zuten gaiak ondo bereiztu eta dagokien edukiontzira botatzea dela garrantzitsua.

Mikroenpresak diruz laguntzeko ekimenak, martxan

LEA IBARRA // Ibarreko udal guztiek, hau da, Amoroto, Aulesti, Gizaburuaga, Mendexa eta Munitibarreko udalek, COVID-19aren kalte ekonomikoak kontuan hartu eta diru laguntzak eman zizkieten autonomoei eta enpresa txikiei. Diru laguntzak Lea Ibarreko Udal Mankomunazgotik bideratu zitzaizkien udalei, eta tokian tokiko administrazioak onartu zituen. Gizaburuagako Udalak 15.000 euro bideratu zituen, Aulestikoak 10.000 euro, Munitibarrek 10.000 euro, Mendexak 13.000 euro eta Amorotok 10.000 euro. «Beharrezkotzat jo dugu udalerriko familien beharrian ekonomikoei erantzutea. Egoera honek ekarri dizkieten zailtasun ekonomikoak gainditzen lagundu nahi diegu», azaldu zuten.



MUNITIBAR • AULESTI • GIZABURUAGA • AMOROTO • MENDEXA

leaibarra.com

LEA IBARREKO MANKOMUNAZGOA
 Elexalde, 1
 GIZABURUAGA
 tf./faxa: 94-684 29 82
 leaibarra@bizkala.org



Lehen lerrokoei esker ona erakutsi zieten

MARKINA-XEMEIN // Udalak omendu egin zituen osasun etxeko eta San Roke egotetzeko langileak, udal bilkura aretoan. Era horretara aitortu nahi izan zien pandemian herritar guztiak zaintzeko egindako «lan izugarria». Esker oneko berbak erabili zituen Luis Egurrola Markina-Xemeingo alkateak. «Eurak izan dira lehenengo frontea, eta lehen lerroan sufritu dute pandemia», adierazi zuen.



Plazan elkartuta, batera jolasteko

AULESTI // Konfinamenduan hasi ziren hainbat aulestiar Egunean behin jokoan parte hartzen, eta uztailaren 10ean ekimenaren azken saioa egin zuten herriko plazan, mugikorrek eskuan, jokatzeko gogoz eta inor baino azkarrago erantzun zuzenak emateko prest. Onintza Galdos izan zen irabazlea.



Herritarrek herritarrei laguntzeko helburuz

ONDARROA // Koronabirusaren baitan elkar zaintzeko sortutako herri dinamikatik abiatuta, beste urrats bat eman zuen udaleko Ongizate Batzordeak. Alkarreaz izena eman zion egitasmoari, eta helburu hauekin jaio zen: herritarrek herritarrekin denbora pasa, berba egin, konpainia egin, lagundu edo bakarrik daudenei laguntza eskaintzea. «Bizitzak erdigunean jartzea», horixe zen antolatzaileen oinarritzko ideia.




Artzaintzako artile bilketa antolatu zuten

MUTRIKU // Deba Beheko Landa Garapenerako Elkartek artile bilketa antolatu zuen Debabarreneko artzaintzat. Mutrikuarrek Azpeitiko Lapatx zabortegira eraman behar zuten artilea, uztailaren 22rako. Zerbitzua erdibana ordaindu behar zuten artzainek eta aldundiak.



KAREAGA
ATEAK
TOLDOAK
KRISTALDEGIA



■ Ateak orokorrean
Leihoak
(PVC, aluminioa
eta egurra)
Aroztegiko lanak
Edozein
motatako kristalak
Toldoak

Buenaventura Zapirain, 6 - behea. LEKEITIO
Tel. 94 684 28 55 / Faxe. 94 684 15 27 / kareagaateak@euskalnet.net



www.fideslan.com

Fideslan

**Negozio
kontsultoria eta
aholkularitza**

Antiguako Ama, 11
ONDARROA • Tel.: 94-683 32 08
DONOSTIA • Tel.: 943-429 609
fideslan@fideslan.com



Karmengo kalean segurtasun heziak jarri zituzten

MARKINA-XEMEIN // Udalak segurtasun hesiak jarri zituen Karmengo kalean, hain zuzen ere, Itxurritxu kaleko bidegurutze pareko espaloian, helburu honegaz: neurri handiko ibilgailuak eta autobusak bertatik igarotzean, eta, batez ere, bihurgunea hartzean, oinezkoak babestea.



Sololuzeren gorpuzkiak aurkitu zituzten

MARKINA-XEMEIN // Abuztuaren 16an, gorpuzkiak aurkitu zituzten Zaldibarko Verter Recycling zabortearen, eta handik hiru egunera, Alberto Sololuzerenak zirela baieztatu zuten. Horren aurrean, udalak adierapen bateratua kaleratu zuen, senideei doluminak

agertzeko eta erantzukizunak eskatzeko. Bestalde, sindikatuak ardurak argitzea eskatu zuten abuztuaren 28ko elkarretaratzean, Markina-Xemeinen. Era berean, esan zuten Joaquín Beltrán aurkitu arte bilatzen jarraitu behar zela.



Baserri azokan hitzorduei eutsi zieten

LEA-ARTIBAI // Urteroko hitzorduei eutsiz, Lea-Artibai Landa Garapen agentziak baserri azokak antolatu zituen Ondarroan —argazkian— eta Lekeition, baserrietako produktuen kontsumoa bultzatu nahirik. Batean eta bestean, segurtasun neurriak hartu zituzten, egoerak baldintzatuta.



Txirrindularitzako proba bi egin zituzten

BERRIATUA // Txirrindulari proba bi jokatu ziren: hilaren 1ean, XXXVIII Aitxekutz Saria, XIX Juan Luis Kanterape Memoriala, eta 14an, Junior Mailako 2020ko Euskadiko Txapelketa. Biak Berriatuko Txirrindulari Elkartek antolatu zituen, bigarrena Bizkaiko Txirrindularitza Federakundeagaz bat.

INOXKEA
HIRI ALTZARIAK

inoxkea@inoxkea.com www.inoxkea.com

INOXIDABLEAK eta burdin lanak

Tel. 94 624 35 40 / Mug. 626 77 01 97
Okamika indust. 1 A pab. 1. Mod. / 48289 GIZABURUAGA

Joseba Fernandez Bedialauneta

Itxasxare

ITXAS ONTZIEN KONPONKETA ETA MANTENIMENDUA

659 67 02 33
943 60 38 72
josebafed@ gmail.com
Antzomendi Polig. / Galdona bidea
• P1 pabiloia • 20630 MUTRIKU (Bizkaia)

ezenarro@ezenarro.com

Gabartz industrialdia, z/g. ETXEBARRIA If. 84-616 75 00 - fax: 84-616 70 72



Lekeitioko ekimen bat.

Kultur ekimen ugari prestatu zituzten, irudimena erabilita

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU //

Mota ugaritako ikuskizunak antolatu zituzten, segurtasuna bermatuta

Ezohiko abuztua izan arren, ez zen falta izan proposamenik Lea-Artibain eta Mutri-kun aisialdiaz gozatzeko. Lekeition oparoa izan zen eskaintza, eta, ekintza ugariz

gozatzeko aukera egon zen, hala nola, dantza solte txapelketa, bertso saioa, musika bandaren eta Bilboko orkestra sinfonikoaren kontzertuak eta spinning maratokia.

Jaien faltan, kultura

Ondarrutarrek, andramariak antolatu ezin, eta kultur programazioa atundu zuten abuzturako, Kultur uheri izenburupean. Umeentzako eta nagusientzako saioak

ikusi ahal izan ziren, batzuk frontoian eta beste batzuk kiroldegian: antzerkiak, kontzertuak eta bertso emanaldi arrakastatsuak.

Mutrikuarrek ere, egoerari aurpegi ona jarri, eta Bada posible kultur jaialdia jarri zuten abian, udako iluntzegauak girotzeko. Eta ildo beretik, Markina-Xemeinen bi ekintza gauzatu ziren: zine emanaldia aire librean eta zirko-antzerkia.

Egurrezko lurzorua jarri zioten frontoiko probalekuari



ETXEBARRIA// Kontrakantxa-ko maratik hasita, frontoiko probalekuko lurzoru osoa egurrezko lurzoru bategaz estali zuen Etxebarriko Udalak, frontoiari erabilera handiago emateko asmoz. Era horretara, iragarri zuten «beste era bateko ekintzak» egin nahi zituztela. Horren adibide, zumba eta dantza ikastaroa bertan ematen hasi ziren. «Megafonia ere ondo dabil, eta gustura ari dira ekintzeta-ko parte hartzaileak», adierazi zuen Jesus Iriondo Etxebarriko alkateak. Beharrak uste baino denbora gehiago iraun zutela esan zuten udalburuak. Era horretara, hil gutxi-ko lana izan behar zena 11 hilabetez luzatu zen. 2020an harmailak erosteko asmoa zeukaten arren, COVID-19aren eraginez, aurreikuspena bertan behera geratu zen.



Kardala LHII
AKUAKULTURA ESKOLA



SARBIDEA: Erdi eta Goi mailako Lanbide Heziketa • Batxilergoa • Sarbide Froga (Cadarra) • Unibertsitatea
WON LAN EGITEKO? Arrain Haztegiak • Itsaskien Biberoak • Akuariumak • Ikerketa zentroak • Animalia dendak

Goi mailako Heziketa Zikloa
www.mutrikuakuakultura.hezkuntza.net/eu

MUTRIKU
943 60 71 37

idazkaritza@kardalalhii.net

[akuakultura](#) [akuakultura_kardala](#)

Bidegorriaren erabilera arautu zuten seinaleen bidez

ETXEBARRIA // Udalak bidegorriaren erabilera arautu zuen, eta seinaleak jarri zituen sarreteretan, jakinarazteko zeinek erabili ahal zuen eta zeinek ez. Galarazo egin zen bidegorritik bizikletan edo motordun ibilgailuetan ibiltzea. Hori bai: ume txikiek bizikleta eroan ahal zutela argitu zuten, betiere helduek lagunduta —azken horiek, oinez—, eta gehienez ere 5 kilometro orduko abiaduran. Hainbat erataraz gozatzeko aukera ere ematen zen, hala nola, patinetean, patinetan eta monopatinean, edozelan ere oinezkoen lehentasuna emanda.



Artedrama ez ohiko datetan egin zen, arrakastaz

AULESTI // Urtero udaberrian eman ohi duen loratzea udazkenean ekarri zuen 2020an Artedrama Euskal Laborategiak. Aste oparoa igarota, balorazio positiboa egin zuten antolatzaileek. Arte eszenikoen egutegian ekonkortuta dago Aulestiko hitzordua, eta azken

urteotan aretoak eta frontoiak jendez gainezka ikustera ohituta zeuden. Aforo mugak muga, emanaldi guztiek harrera ona eduki zuten. «Erakutsi dugu zentzuz jokatura antzerkia eskaini daitekeela eta guk lan egin ahal dugula», esan zuten.



Eztabaidarako gune feminista eta guzti

ONDARROA // Etxelila Emakumin Topalekuak 2020-2021 ikasurterako eskaintza aurkeztu zuen, berrikuntzekin. Era horretara, ohiko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaz gain, Eztabaida Gune Feminista proposatu zuten, jarduera irekiz gainezka.



Zentro ofiziala izateko azken pausoak

LEKEITIO // Eliz Ateko eraikina musika eskola bihurtu zen eraikina prestatu eta izapideak bete ostean, eta, horri esker, zentro ofizial bihurtzeko azken pausoak eman ahal izan zituen Musikaia Eskolak, sorreratik bertatik zeukan helburuari jarraituta.

IBETARRI
iB
ARRI
 ERAIKUNTZAK ETA HARRILANAK S.L.
687 795 736
ibetarr@ibetarr.eus

**MOTA GUZTIETAKO
ERREFORMAK,
TEILATUAK,
ETXEBIZITZA BERRIAK,
BASERRIEN
BERRIZTATZEA,
ERREFORMATARAKO
DISEINUAK...**

IRIGOIEN OPTIKA

Zumatzeta, 1 - LEKEITIO 48280
 T./Fax 94 684 31 72
irigoienoptika@telefonica.net

Iñigo Aretxaga

Finka administratzailea
 Higiezin zerbitzuak
 Alokairuak eta salerosketak

Iñigo Aretxaga
 Bizkaiko finka
 administratzailea, s.k.: 808
 Arangiz II-Lekeitio
 Tel./Faxa: 94-465 35 75
 Sakelakoa: 656 58 03 14
iaretxaga@yahoo.es



Markina-Xemeingo Arretxinaga etorbideko iturria.

Ur kontsumoa murrizteko neurriak hartu zituzten

LEA-ARTIBAI //

Herritarrei erantzukizunez jokatzeko eskatu zieten

Artibai ibaiko hornidura iturri nagusiaren ur maila baxua zela eta, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ur kontsumoa mugatzea gomendatu zuen Lea-Artibaiko bost herritan.

Hain zuzen ere, herri hauetan hartu behar ziren neurriak, erakundearen esanetan: Markina-Xemein, Etxebarría,

Aulesti, Munitibar eta Ziortza-Bolibarren. Galarazotako jarduerak, berriz, hauek: igerilekuak betetzea edo ura berritzea, ibilgailuak eta patioak garbitzea edo plaza txikiak eta antzeko espazio pribatuak garbitzea.

Ardura eske

Erabakiak, horrenbestez, 7.000 herritarri eragin zien, eta eskatu zieten erantzukizunez jokatzeko eta eremu pribatuan edateko ura zentzuz erabiltzeko. Neurri horiek hartzea derrigorrezkoa izan zela esan zuten, «lehorteari

aurre egiteko». Bide horretatik, ekidin egin nahi zuten neurri gogoragoak hartu behar izatea, hau da, ur hornidura etetea.

Markina-Xemeingo Udalak, esate baterako, neurri hauek hartuko zituela iragarri zuen: sare publikora lotutako herriko iturriak aldi baterako ixtea, parkeak eta lorategiak ez ureztatzea, kaleak derrigorra denean baino ez bustitzea eta eraikin eta zerbitzu publiko batzuetan uraren giltza zarratzea. Bide batez, ura «baliabide mugatua» dela gogorarazi zien herritarrei.

Berdintasuneko I. plana martxan jarri zuten

ETXEBARRIA// Herriko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana diseinatzeko hasi zen Etxebarriko Udala. Hurrengo hilabeteetan, Murgibe aholkularitza zentroaren laguntza izango zutela aurreratu zuten, eta hainbat zeregin hartuko zituztela. Argitu zutenenez, planaren diseinua herritar guztiei zabalik egongo zen, eta denen parte hartzea bilatzeko asmoa zeukaten. Era horretara, hainbat alor elkarlanean jarri nahi zituzten, hala nola, udal langileak, politikariak eta herriko eragileak. Horretarako, topaketak, elkarriketak eta galde-tegiak egiteko gogoia erakutsi zuten. «Datuak eta estatistikak berrikusiko dira, jakiteko zer hobekuntza egon diren eta ze hobetu behar den emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloan», azaldu zuten. Batez ere, herritarren parte hartzearen beharra nabarmendu nahi izan zuten, «informazio oso baliogarria» eman zezaketelako.




INTERSPORT TALDEAK
KIROL ELKARTEENTZAKO EKIPAMENDUA PERTSONALIZATUAK

EDOZELAKO KIROL ARTIKULUAK

- 10 artikulutik gora
- Bezero bakoitzarentzako diseinu bakarrak
- Kotoizko arropak
- Kamiseta teknikoak kanporako eta barrurako
- Jakak, txalekoak, zirak...
- Motxilak, boltsak, txanoak, osagarriak...
- Txandalak
- Prakak
- Eskolarako arropak
- Lanerako arropak

GALDETU KOMPROMISORIK GABE!



INTERSPORT
SPORT TO THE PEOPLE

GERNIKA.

Urkieta 4. 946255516

ONDARROA.

Artabide 17. 946832005

BERMEO.

Bizkaiko Jaurerria 3. 946883494

ARDURADUN KOMERTZIALA

extreme.colectivos@shop.intersport.es
T. 634 900 670



Beristainen obrak lekualdatzeko lanetan

ONDARROA // Kalare Deuna kofradia eraitsi aurretik, Felix Beristainen lanak ateratzeari ekin zioten. Eusko Jaurlaritzak espezialistei agindu zien zeregina, zaharbertzetan ziharduen enpresa batekoei. Gainera, artista ondarrutarrak prozesu guztia jarraitu zuen, eta lanen ezaugarriak buruzko informazioa emanaz, zeregina erraztu. Jaurlaritzak aurreratu zuenez, kofradiaren eraikin berrira pasatuko zituzten lanak.



Osasuna eta segurtasuna aldarrikatu zuten

LEA-ARTIBAI // Lea-Artibai eta Mutrikuko osasun zentroetako langileek 15 minutuko elkarretaratzak egin zituzten irailaren 18an, sindikatuen deialdiari erantzunez. Bertan, «langileen osasuna eta segurtasuna bermatzeko aldarria» egin zuten, eta «leher eginda eta gainezka» zeudela salatu.



Kutxabankeko bulegoak irekitzeko eskaria

LEA-ARTIBAI // Aulestiko eta Berriatuko Kutxabankeko bulegoak zarratuta zeuden, martxotik, hau da, alarma egoera indarrean sartu zenetik, eta horren aurrean, hango udalek berriro zabaltzeko eskatu zioten bankuari. Nabamendu zuteenez, herriotako bizilagunen %70ak 70 urte baino gehiago dauzka, «eta ez dute banku eragiketarak egiteko teknologia berriak erabiltzeko beharrezko baliabide eta ezagutzarik».



Eukaliptoen eragin okerreaz ohartarazi zuten

LEA-ARTIBAI // Eguzki talde ekologistak ikerketeta zientifikotik oinarrituta ohartarazi zuenez, eukalipto landaketaren gorakada «kezkarria» da, «biodibertsitatearentzako mehatxu direlako eta ondorio kaltegarriak dakartzalako ingurumenean, lurzoruan, ekosisteman, faunan eta paisaian».



IBARPLAS

LEIHOAK

Zure neurriko finantziakioak!
www.ibarplas.com

tel.: 943 19 92 26

Itziarrekko Industrialdea • ITZIAR

GOIZMEK, S.L.

MEKANIZATUAK

Tf. / Faxe: **94 684 1413**
goizmek@goizmek.com

okamika industrialdea, 3A • GIZABURUAGA



ETXEBARRIKO UDALA

• Peñanekua Plaza, 1
• 94-616 64 32
• www.etxebarriz.biz



AINARA SESMA
FARMAZIA
94-616 63 56



ANTSOTEGI
HOTELA-JATETXEA
94-616 91 00



OTSOLO
TABERNA
94-616 96 90



IRU-BIDE
TABERNA
94-616 65 50



KATTALIN
JANARI-DENDA
94-616 61 52



ZUR
ILE-APAINDEGIA
94-616 88 30



OLAIA
JATETXEA
94-616 63 94



TXOMIN
PENTSIOA
94-616 82 22



AYMAR KALZAKORTA
OSTEOPATIA ETA MASAJEA
94-616 64 64

**Herriañ bizi eta erosi,
dañoñ arteañ alkar zaiñduz!**



Hondartzei nota ona eman zieten erabiltzaileek

LEA-ARTIBAI // Balorazio oso ona izan zuten Bizkaiko hondartzek, tartean, Lea-Artibai-koek, batzaz beste, 7,92ko puntuazioa. Hamar pertsonatik zazpi seguru sentitu ziren. Is-pasterko hondartza egon zen garbien erabiltzaileen ustez: 8,63 puntu eskuratu zituen. Segurtasunari erreparatuta, hirugarren postua eman zioten Mendexako Karraspio hondartzari.



Alarma egoera ezarri zuten sei hilabeterako

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Koronabirusa-gatik ezarritako alarma egoera maiatzaren 9ra arte luzatzeko proposamena egin zuen Pedro Sanchez Espainiako presidentek Kongresuan. Horren eraginez, herrien arteko mugikortasuna eta taldean batzeko auke-

ra mugatu zen, eta etxeratze agindua ezarri. Hainbat ekimen bertan behera geratu ziren, esate baterako, Lea-Artibaiko Elikagaien eta Artisauen Eguna. Urrian intzidentzia altue-na zeukaten herrien zerrendan zeuden bertoko hainbat herri.



Usotegiko uzta, Gurutze Gorriarentzat

LEKEITIO // Urte berean zazpigarrenez, Usotegiko uzta eman zion Lekitto Bedarrak Gurutze Gorriari, beharrik handiena zeukaten artean banatzeko. Herriko 65 familiari ari ziren laguntzen, eta hilean behin ematen zizkieten ortuariak Elikagaien Bankuko janariekin batera.



Parkeko guneak hamar urte bete zituen

LEKEITIO // San Antolin jaietako Parkeko guniak hamar urte bete zituela eta, urte osoko kultur programazioa prestatu zuten, hileko ekimen bat, urritik hasita. Aurreratu zuten, emanaldiak Ikusgarri zineman egiteko asmoa zeukaten, baina parkeko ekitaldi bereziak, parkean bertan.

Gizaburuagako udala

Eleizalde 2 • 48289 Gizaburuaga

GOIXARRI S.L.
ERREFORMA LANAK

goixarri@gmail.com

630 273 414
615 750 960

Mutriku

GOITIKO
JATETXEA
KAFETEGIA

Foru Enparantza, z/g • LEKEITIO

94 684 31 03



Literatur Amuak ekimenaren aurkezpena.

Kultur proposamenetan haginka egin zuten kulturzaleek

LEA-ARTIBAI //

Literatura eta arte eszenikoak protagonista izan ziren urrian

COVID-19ak ekitaldien antolaketa asko baldintzatu bazuen ere, Literatur Amuak ekimenagaz aurrera egitea erabaki zuen Ondarroako Udalak.

Bederatzi proposamen egin zituen, euskal sorkuntza oinarri. Era horretara, hainbat diziplinaz gozatzeko

aukera eman zen, hala nola, literatura, sormena, dantza, bertsolaritza, musika eta zinema.

Nobela, filmora

Jaialdia *Hil kanpaiak* filmaren proiektzioak zarratu zuen, 33 *ezkil* Zubikarai nobela beka irabazlearen lana oinarri duen filma. «Ondarroako sariketarako sortu eta berriz ere herrira bueltan datorren haria da. Guretzat ohorea da filma proiektatzea. Zer edo zelan, lan hori herrira itzuli da,

sustraia berton dauka-eta», azaldu zuten.

Ekimen berriak ere martxan jarri dira, osasun larrialdia hor egonik ere. Horrela, Markina-Xemeinen MARKArte arte eszenikoen lehenengo jaialdia abiarazi zuten urrian *Simplicissimus Kabaret* eta *Zehar* ikuskizunekin. Formatu trinkoa prestatu nahi bazuten ere, egoerak eraginda, Gabon bueltarako utzi zituzten beste bi emenaldi, hain zuzen ere, abenduaren 26 eta 27rako.

Bataio zibilak arautzeko pausoak eman zituzten



ONDARROA// Udala ordenantza prestatzen hasi zen bataio zibilak arautzeko, hau da, herritartasunera ongi etorri ekitaldiak. Ordenantzaren bidez arautu egin nahi dira ongietorria emateko prozedurak udal titulartasuneko lokaletan. Arauaren helburua hau da: jaioberriei ongietorria ematea. «Zeremonia zibil eta laikotzat hartzen da, eta gurasoek edo tutoreek konpromisoa hartzen dute adingabea hainbat balioen arabera hezteko, hala nola, balio zibikoetan, demokratikoetan, berdintasunetan eta errespetuan», adierazi zuten. Ordenantza idazteko eskaria herritarrengandik jaso zuten. «Hileta zibilak egiteko ordenantza bat dagoen modura, jaioberriei Herritartasunera ongietorria emateko edo bataio zibilak modura ezagunago den araudi bat edukitzeko eskatu ziguten», azaldu zuten. Proposamena udal batzuan eztabaidatu aurretik, ekarpenak egiteko aukera ireki zuten.



zure etxea zure espazioa delako,
egokitu dezagun alkarrekin!



DISEINUA · PROIEKTUAK · DEKORAZIOA · ERREFORMAK

@estioasolo 666 638 883 MARKINA-XEMEIN



Udalak arraun taldearen lokala erosi zuen

MUTRIKU // Udalak arraun taldea erosi zuen, 205.000 euroren truke, lokalaren jabearekin akordiora heldu ostean. Horrela, aspaldiko asmoa bete zuen administrazioak. «Arraun taldeak dio lokal horrekin moldatuko direla», adierazi zuten udalean. Aurreratu zuenez, ordainketa hiru zatitan egingo zuten. Arraunlariek pozik hartu zuten berria, lokal propioa izateako «egonkortasuna» emango zuelako.



Pirritx eta Porrotx, umeen gozagarri

AMOROTO // Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Bizi dantza* ikuskizuna eskaini zuten frontoian, Kultura Taldearen eta udalaren arteko elkarlanaren fruitu. Pandemia garaiko lehenengo ekimena izan zen, eta antolatzaileak pozik azaldu ziren, segurtasun neurriak bete eta erantzun zabala izan zuelako.



Mendi Astea aurrera, urte aldapatsuan

MARKINA // Laugarren urtez jarraian, Artibai Mendizale taldeak Mendi Asteburua antolatu zuen, oraingoan hainbat taldegaz elkarlanean, hain zuzen ere, Ahaztuen Oroimena, Leaktibai, udala, Antsotegi eta Uhagon. Hitzaldi eta film proiektioez gain, bigarren gerra lerroko memoria ibilbidearen zati bat bertatik bertara ezagutzeko aukera egon zen, Zapola inguruko bisita berezien bitartez.



Gabixolak gose greba amaitu zuen

MARKINA // 99 egun gose greban egin eta gero, amaitutzat eman zuen protesta Jose Mari Lejardi *Gabixolak*. Era horretara eskatu nahi izan zuen «Iruña-Veleia auzia zientziaren bidez argitzea». Arabako aldundiak agindu zion beste plangintza bat jarriko zuela abian aztarnategirako.

GAIMAZ, S.L.
www.gaimaz.com

Bekobenta 21. Pabellón URLO
48270 Markina-Xemein
T. 94 616 74 36 / F. 94 616 76 11
gaimaz@grupogaimaz.com

AENOR
Empresa Registrada
ER-2578/2003

AENOR
Gestión Ambiental
GA-2003/0130

AENOR
Seguridad y Salud Laboral
SS-4148201

GALDONA
JATETXEA
KANPINA
MUTRIKU

943 60 35 09

ESKUTUR
ITURGINTZA

Rikardo Juaristi
Tfnoa: 629 144 352

Xabier Aranzadi
Tfnoa: 685 758 314

Interribarri, 9 behean
48700 ONDARRROA • Bizkaia
Tfnoa: 94 683 33 37

eika

eskualdetik mundura



EIKA, S.COOP, Urresolo, 47 48277 Etxebarria, Bizkaia www.eika.es



Urriola auzoan piztutako suak baso bat erre zuen

AULESTI // Azaroaren 6an, sua piztu zen Urriola auzoko baso baten, hain zuzen ere, Muxon. Segurtasun Sailean jakitera eman zutenez, 15:07 aldera jaso zuten abisua SOS deiak telefonoan Urriolan sua zegoela esanez, eta etxe eta txabola batzuk hurre zeudela zehaztuz. Haize handiaren eraginez, garrak bizkor zabaldu ziren. Gertaeraren berri izanda, suhiltzaileak Lekoizko harrobietatik sutearen gunera joan ziren, eta 18:45erako kontrolpean zeukaten. Hala ere, suhiltzaile talde bat ingurua zaintzen geratu zen 23:50 aldera arte. Garrek ez zuten etxerik kaltetu eta inor ez zen zauritu.



Indarkeria matxista ozen salatu zuten herririk herri

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Azaroaren 25ean, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna zela eta, herrietako plazak bete ziren. Elkarretaratzeak ezeze —argazkian, Mendexakoa—, beste hainbat ekintza ere egin ziren efemeridea-

ren inguruan, besteak beste, antzerki emaldiak, literatur solasaldiak eta hitzalditertuliak. Data gogoan izanda, 2019ko Emakunderen txostena ezagutzera eman zuten: Ertzaintzak emakumeen aurkako 5.518 indarkeria kasu erregistratu zituen EAEn.



Mendieta ontziola egonkortzeko lanetan

LEKEITIO // Mendieta ontziola egonkortzeko zereginak martxan jarri zituzten. Lekeitioko Udalak aurreikusi zuenez, lanek lau hilabete iraungo zituzten. Azaldu zuenez, uraren eraginez zutabeak mugituta zeuden, eta lanak eginda jatorrizko lekura eramango zituzten. Era horretara, eraikina zuzendu egingo zuten.



Plazabarriko margoketarik haserre

MARKINA-XEMEIN // Udala Plazabarrirako horma-irudiak margotzen hasi zen, eta horregatik haserre zeudela adierazi zuten herriko zenbait eragilek, ETXak eta gazte asanbladak, hain zuzen ere eskatu zutelako irudiok berritzeko zeregina euroi uztea kanpotik enpresa bat ekarri beharrean.

DASATEGIA
Egindaren la

Atea kalea 29 (ikastolaren parean)
LEKEITIO
94 684 29 25
688 719 843

www.erabil.es

ERABIL
KARTOI KUTXAK

Zulueta auzoa z/g • AMOROTO
Tel.: 94 684 40 02
Faxa: 94 684 41 47
comercial@erabil.es

ERGI
EROTZEN DUT
Nº 120883

Joseba Iñaki Eleizgarai
Masajista Osteopata

Konte kalea, 22
Mutriku 630 788 059



Berriatuko elkarretaratzeko irudia.

Osasun etxea zortzi hilabetez zarratuta zegoela kexatu ziren

BERRIATUA //

Azaroaren 23an aurrez aurreko arretoa ematen hasi ziren

Martxoan lehenengo alar-ma egoera ezarri zenetik osasun etxea itxita zeukata eta, berriatuarrek mobilizazioak egin zituzten, eta haserrea azaldu.

Herriko osasun etxeko medikuari zabaltzeko eskatu zioten, baina hark erantzun zion osasun berme guztiekin zabaltzeko beste langilerik ez zegoela.

«Osasun etxea zabaltzeko, sarreran tenperatura hartuko duen norbait behar dela esan digu. Erantzun horren aurrean, administrazioari eskatzen diogu osasungintzan inbertsioak egiteko eta gure herriko osasun etxea zabaltzeko», adierazi zuten deitzaileek.

Deialdiak

Berriatuan osasungintza publikoa eta oinarrizko gizarte zerbitzuak defendatzeko elkarretaratzea deitu zuten azaroaren 4rako. Erantzun zabala eduki zuten deiak, eta errepidea ere moztu zuten berriatua-

rrek ezinegonaz adierazteko.

Berriatuan ezeze, beste herri batzuetan ere mobilizatu ziren egun berean osasungintza publikoa defendatzeko, hain zuzen ere, Ondarroan, Markina-Xemeinen, Lekeitio eta Mutrikan. Lehenengo arretarako baliabide gehiago eskatu zituzten, baita osasungintzan inbertitzea eta murrizketarik eta pribatiziorik ez egitea.

Berriatuan, hilaren 23an berriro zabaltu zuten osasun etxea, eta aurrez aurreko arretoa eman.

Udalak doako wifi sarrera ahalbidetu zuen

MARKINA-XEMEIN // Markina-xemeindarrei eta bisitariei kablerik gabeko Internet zerbitzua doan erabiltzeko aukera eman zien udalak, Zelaibarripeko goiko aldean eta erro-mesen aterpetxe inguruan, Plazabarripean eta Kultur Aretoan eta kiroldegian.

Araztegia eta hodi-biltzaileak prest utzi zituzten

MUNITIBAR // Herriguneko eta Gerrika, Gerrickaitz eta Totorika auzoetako 500 bizilagunen hondakin-urak tratatzen hasi ziren. «Hondakin-uren araztegia martxan jartzeak goi-barreko ingurumena hobetzen lagunduko du», esan zuten Ur partzuergoak.

Europak 'Zaldibarko auzia' ikertuko zuela agindu zuen

MARKINA-XEMEIN // Zaldibarko Argitu plataformak eta Ekologistak Martxan elkarrekin auzia aurkeztu zuten Europako Batasuneko Eskaren Batzordean, eta horrek gaia ikertzea agindu zuen, hau da, Europak hondakinen kudeaketaren gainean daukan araudia bete den edo ez. Urtarrilaren 21era arteko epea jarri zuten auziari buruzko iritzia emateko.



Antiguako Ama, 5
94 683 01 29
ONDARROA



lorakesther
94-683 09 60
lorakesther.com
Artabide, 24 ONDARROA

**LEA ARTIBAI
FVNERARIA**

Tanatorioa,
Gardotzako
industrialdean

MARKINA-XEMEIN
94-616 62 12
ONDARROA
94-683 09 60
659 87 92 68



Baheketa masiboa egin zuten

ONDARROA // Baheketa masiboa egin zuten Ondarroako eta Berriatuko 13-40 urte bitarteko bizilagunen artean. Guztira, 2.585 lagun egon ziren proba egitera deituta. Eladino Gonzalez Ondarroako osasun etxeko arduradunak nabarmendu zuenez, era horretara asintomatikoak atzeman ahal izango zituzten. «Horri esker, positiboak eta ingurukoak isolatu ditzakegu, eta transmisioa eten», azaldu zuen.



2021eko egutegirako irudia aukeratu zuten

LEKEITIO // Aroa Arrate aulestiarraren argazkia aukeratu zuten 2021eko Lea Ibarreko egutegia irudikatzeko. Hamar lagunek parte hartu zuten lehiaketan, eta guztira hamalau lan aurkeztu zituzten. Irabazleak Muxora bideko errekaetara eroan zuen argazkira, eta 500 euro eskuratu zituen lanarengatik.



695. urteurrena gogoan hartu zuten

LEKEITIO // Lekeitioko udalerrriak 695 urte bete zituen azaroaren 3an, eta kanpai hotsekin gogoratu zuten egun handia. Horrela, herriko eliza guztietako ezkilak batera jo zituzten, eta udaletxetik bolanderak bota. Ospakizunak aurretik hasi ziren, oster, hiru hitzaldi antolatu zituzten-eta Europako Ondare jardunaldien baitan. Udalak aurreratu zuenez, begirada 2025ean jarrita zeukaten, herriaren 700. urteurrenean.



Europako ondarearen jardunaldiagaz pozik

LEA-ARTIBAI // Europako Ondarearen Bizkaiko Jardunaldien balantze positiboa egin zuen Bizkaiko Foru Aldundiak. Jardueretan parte hartu dutenen %75ak esan du jardunaldiak lehendik ere ezagutzen zituztela. 2021ean ondarea eta hezkuntza uztartzea eduki zuten helburu.

ZORION AGURRAK eroateko lekuak

Sustrai

— BELARDENDA —

Iparragirre, 6 ONDARROA
94 683 07 62

Ondarroa

ANSORREGI
oinetakoak



erdiko kalea, 9
943 60 33 42
mutriku

Mutriku

• LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO •

HITZA

Arretxinaga I / T. 94 684 44 36

Markina-Xemein

GUZURMENDI
KAFETEGIA

Arranegi, 2 • LEKEITIO
94 624 37 25

Lekeitio



zuen
etxea
ZUEN
NEURRIRA



15 urte zuen artean!

dendari kalea 44 - Lekeitio / t. 94 6843014
dkstudioalekeitio@yahoo.es / @dk_lekeitio

Danonartin elkarteak esker onez jaso zuen udalaren diru laguntza

ONDARROA // Udalak 5.000 euro eman zizkion Danonartin elkarteari herriko dendetan elikagaiak erosi eta premiadunen artean banatzeko. Bide batez, bultzada eman nahi izan zien bertoko dendei. Danonartineko kideek esker onez jaso zuten babesia. «Hori barik ezingo genieke guztiei jatekoa banatu», esan zuten. Era berean, Berriatuko Udalak ere diru gehiago eman zien. Danonartin elkartearen jarduna beharra duten herriarrei laguntzea da, eta adierazi zuten, pandemiaren testuinguruan hirukoiztu egin ziren premia zeukate-nak: urte amaieran 70 familia zeuden talde horretan.



Kontzezio Eguneko bertso jaialdiagaz hitzordua

MARKINA-XEMEIN // Kontzezio Eguneko bertso jaialdiagaz aurrera egitea erabaki zuen Amaiur elkarteak, eta ohi legez, sei bertsolari atera ziren frontoi nagusiko oholtzara, hauek: Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Miren Amuriza. Bertsolari guztiek

eskarmentua zeukaten, aurretik parte hartutakoak baitziren. Bakar batentzat izan zen esperientzia berria Maite Berriozabal gaitzaitzailearentzat. Sarrera guztiak jaialdiaren aurretik agortu ziren, pandemia egoeratik edukiera mugatua zen eta. Horrenbestez, irudi ez ohikoa agertu zuen frontoiak.



Euskaraldiaren aukera guztiez baliatuta

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Euskaraldiaren barruan, antzerki emanaldiak eskaini ziren Etxebarrian, Ziortza-Bolibarren eta Aulestin —argazkian, *Urpekakariak*— Horrez gain, besteak beste, Munitibarren irakurtaldia egin zuten, Markina-Xemeinen bisita gidatua eta Berriatuan zumba eta jolasak.



Pentsiodunak mobilizatu egin ziren

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Pentsiodunek mobilizazioak deitu zituzten Toledoko gomendioen aurka protestatzeko, eta, beste behin, egungo pentsio sistemaren gabeziak salatzeko. Lekeitio —argazkian—, Mutriku eta Ondarroan batu ziren aldarrikapenak lau haizeetara zabaltzeko.



**EGIGUREN
ERAIKUNTZAK**

Loiolako Iñaki deuna kalea, 6-behea
LEKEITIO • tel./faxa: 94-684 00 10

**HONDALANAK
ETXEGINTZA
BERRIKUNTZAK**



ETXEBERRIA
lekttrizitatea
lectricidad

Tel.: 699 852 246
emaila: ula.etxebere@gmail.com

• INSTALAZIOAK OROKORREAN
• MANTENIMENDU LANAK
• ATEZAIN AUTOMATIKOAK

48289 Lekeitio - Bizkaia



AZPITARTE autoak

Okamika Industriagunea, II pabilioia 1A4. • GIZABURUAGA
688 62 92 84 / 94 624 38 60 azpitarteaautoak@gmail.com

- Zerbitzu azkarra!
- Berrikuspenak
- Matxura elektrikoak eta elektronikoak
- Mekanika

Durangoko Azoka etxe guztietara sartu zen, erronkari eutsita



LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Mugak muga, produktuak erosi eta kulturaz gozatzeko aukera eman zen, bertatik bertara zein sareen bitartez

Inoizko bereziena izan zen 55. Durangoko Azoka. Pandemiaren eraginez mugak jarri beharra egon arren, konpromisoari eutsi eta abian jarri zuten, produktuak on line eskuratze-ko aukera emanaz. Ekitaldiei dagokienez, 100 proposamen egin zituzten, eta aforo mugak kontuan hartuta, etxetik ere jarraitu ahal izan ziren.

Durangoko Azokak euskal kulturaren duen zentraltasuna gogoratu, eta liburuak, diskoak eta bestelakoak denda digitalean erosteko

deia egin zieten herritarrei irekiera ekitaldi ofizialean. New Yorketik, Kirmen Uribe idazleak mezua helarazi zuen bideo bidez, eta euskarazko sorkuntzak mende mende utzitako arrastoa izan zuen gogoan.

Hizlari eta aurkezle

Leire Bilbao, liburua aurkeztzen ezezik —*Etxeko urak* poema liburua argitaratu du —, gidari lanetan ere aritu zen Uxue Alberdik azken lanaren berri eman zuenean. Miren Agur Meabek eta Ane Pikazak

Begiak zerumugan beharra azaldu zuten, eta Iker Badiolak, *Behin Zegama-Aizkorrin parte hartu nuen* lanari buruzkoak kontatu zituen.

Musikaren atalean ere eman zuten zeresanik bertokoek, bakarlari eta talde ugariaren lanak Internetetik erosteko aukera egon baitzen Durangon, baita Dena taldearen zuzenekoaz gozatzeko ere.

Durangoko Azoka herrietara ere hurreratu zen Zuzen, han DA! ekimenaren

bidez, Jon Arriaga markina-xemeindarra koordinatzaile lanetan zelarik, eta horren baitan, besteak beste, kontzertuak antolatuta zituzten Ondarroan.

Horrez gain, Eneritz Zeberio dantzari ondarrutarra 2020ko ekitaldiko aurpegiatako bat izan zen, bera zen-eta iragarkiko protagonista.

Testuinguru honetan, Ondarroako hiru film labur Irudienearen film laburren lehiaketako finalerako sailkatu eta eurretako batek irabazi egin zuen: Fail lanak.

2021 URTE ON bat opa dautsuegu!



Berriatua
artibai bihotzean

Tel. 94 613 70 30 / Faxe. 94 613 70 27

www.berriatua.org



Euskaltzaindiak Txomin Solabarrieta omendu zuen

ONDARROA //Euskaltzaindiak 2019an hildako euskaltzainak omendu zituen, tartean, Txomin Solabarrieta ondarrutarra. Euskararen akademiak gogorarazi zuenez, abadea euskararen sustatzaile izan zen Bizkaiko parroketan, eta elizbarrutiko itzultzaile ofiziala ere bai. Adorez taldeko kide, hamabost hiztegiren argitalpenean parte hartu zuen. «Aparteko lana egin izan du ondarrutarrak itsas munduko lexikoa taiutzen, sinonimoak aukeratzen nahiz egokitzen, eta, batez ere, Aditz Hiztegiako milaka esaldi prestatzen», adierazi zuen. Euskaltzaindiak Ohorezko euskaltzain izendatu zuen 2018ko apirilaren 27an. Andres Urrutiak esan zuenez giza testigantza egokia eman zuen Solabarrietak, fedea eta euskara uztartuta. «Euskara bizia jasotzeko gogoia zeukan, Hiztegiaren bidez dotore egin zuena», esan zuen. Solabarrieta 2019ko apirilaren 18an hil zen, Bilbon.



Gizaburuagako agerraldia.

EUSKARALDIaren ariketa urte osora zabaldu zuten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Ariguneak sortu ziren, euskaraz lasai aritzeko guneak

Bigarren Euskaraldiak berritasun garrantzitsua ekarri zuen: Ariguneak, hau da, euskaraz lasai aritzeko guneak. Pandemiaren eraginez, hainbat ekimen moldatu eta beste batzuk sortu zituzten.

Era horretara, apirilaren 20tik maiatzaren 3ra, alarma egoera betean, Etxeal-

ditik Euskaraldira ekimena prestatu zuten, hainbat ariketa jostagarriren bidez etxe barruan zein etxetik hizkuntza ohituretan pizgarri izateko helburuz.

Esperientzia handitzen

2018ko Euskaraldiaren emaitzak hauspoturik, 2020an esperientzia errepikatu eta beste behin gizarte mailako ariketa proposatu zuten, *Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan* goiburu hartuta eta jauzia emanda: Ahobizi eta Belarriprest rolei

Ariguneak gehitu zitzaizkien, hau da, entitateetan euskaraz lasai aritzeko guneak, Belarriprest zein Ahobizi izan. Bigarren Euskaraldia azaroaren 20tik abenduaren 4ra gauzatu zen, eta hori posible egiteko, batzordeak eratu ziren herririk herri, baita eskualdean ere. Gainera, «harremanetan euskararen presentzia areagotu nahirik, eta jakinda ingurune digitalak garrantzi handia hartu duela harreman sareetan», Ahobizi eta Belarriprest digitala aktibatzen proposamena egin zuten.

EUSKAL GARAGARDO NATURALA

LURRINDEGIA

TABAKOAK

Beristain

Barrenkale z/g MUTRIKU 943 603 544



Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako buru izendatu zuten

ONDARROA //Ana Urkiza ondarrutarra Eusko Ikaskuntzako lehendakari aukeratu zuten Batzar Orokorrean irailean, lehenengo emakumea erakundearen historiaren 102 urteetan. Eginkizun berria «ilusioz eta erantzukizunez» hartzen zuela esan zuten.

Lander Garrok irabazi zuen Zubikarai nobela beka

ONDARROA //Lander Garro Hendaiaiko bizilagunak eskuratu zuen XX. Augustin Zubikarai Nobela beka. Epaimahaiaren iritziz «idazkera fresko eta sinesgarria» erakutsi zuen nobela proiektuan.

Pandemian, hizkuntza eskubideak urratuta

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU //Arartekoak kezka azaldu zuen pandemian hizkuntza eskubideak urratu zirelako. «Euskaraz artatua izateko eskubidea ez dute aintzat hartu hainbat alor publikotan», esan zuten. Eragile ugari salatuta zuten euskara bazterrean uzten ari zirela agintarien agerraldietan eta zerbitzuetan.



Euskal zine bilera etxetik jarraitu ahal izan zen

LEKEITIO //Webgunearen bidez, pantaila guztietara zabaldu zuten 43. Euskal Zine Bilera, azaroaren 21etik 29ra. Beste behin, Lekeitio euskaraz ekoiztutako ikus-entzunezkoen erakusleho bilakatu zen, eta hari esker teknika, tratamendu, genero, sorkuntza pro-

zesu eta gai desberdinetako lanak ikusi ahal izan ziren, guztira 19 film labur. 2019ko formatua mantenduz, lehiaketa bateratua egin zen, hau da, ez ziren bereizi lan profesionalak eta amateurrak. Zuzendaritza, gidoi eta film onenaren sariak ezberdindu ziren.

Korrika 2022ra atzeratzea erabaki zuten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU //Pandemia egoera kontuan hartuta, eta erabakia hartzea «gogorra» izan zela onartuta, AEK-k Korrika urtebete atzeratzea erabaki zuen, 2022ra.



Berba Lagunen beharra aldarrikatu zuten

LEA-ARTIBAI //AEKren Berbalagun taldeak abiatu ziren Lekeitio, Markina-Xemeinen eta Ondarroan. Egitasmoak konfiantzazko eremua sortu eta harremanetan jarri nahi zituen euskara praktikatu nahi zutenak eta horiei lagunduko lieketenak, bidelagunak. Parte hartzeko deia egin zuten.

argituko al dizugu bidea?

11barri
DISEINUA
KOMUNIKAZIOA
EUSKARAZ

607 490 166 • 607 490 162 • info@11barri.eus



Arriaga eta Lertxundiren lanak, ikusgai

ARTEA // Jose Pablo Arriaga markina-xemeindarrak etxeko atea zabaltu zituen azaroan *Itoginak* lana erakusteko. «Metakrilatozko horma zurrinak ditugu tartean», adierazi zuen, eta elementu horretaz baliatu zen obra berria sortzeko. Mikel Angel Lertxundi berriatuarrak, bere aldetik, 23. Bosteko erakusketan ibiltarian parte hartu zuen. Horren baitan, bere eskulturak izen honen pean aurkeztu zituen: *Begirada dibergenteak*: *shakkei ukitu bat*.



Literatur uzta zabala eskuratzeko aukera eman zuten eskualdeko idazleek, urte berezia izan arren

LITERATURA // Sormen handiko urtea izan da literaturaren alorrean. Eskualdeko idazleek ekoizpen zabala argitaratu dute.

Beharraren aitortza

Idazleen lanaren aitortza ere, hortxe. Kirmen Uriberen obrari buruzko liburu bat egin zuten, *Bizitza, fikzioa*, izen bereko EHUren udako ikastaroan oinarritua. Gainera, ondarrutarraren poema bat jaso zuten *The New Yorker* aldizkariaren webgunean. Bestalde, Miren Agur Meabek Mikel Zarate haur literatur saria eskuratu zuen, *Itsasoa-aren atea* eleberriarengatik. Horrez gain, Leire Bilbao ondarrutarra omendu zuten Zarauzko Literaturian, haur eta gazte literaturan egindako ekarpenarengatik.

ARGITALPENAK

- Miren Agur Meabe. *Begiak zerumugan eta Nola gorde errautsa golkoan* poema liburuak eta umeentzako lau lan: *Katta ametsetan*, *Katta ihesi*, *Katta mendian* eta *Katta udalekuak*.
- Yolanda Larreategi. *Bi txantxangorri haritz adarrean* (Peru Abarka Album lehiaketa)
- Leire Bilbao. *Etxeko urak* poema liburuak.
- Iñigito Txapelunk *Gabonetako Ipuinak*.
- Maribel Aiertza Rementeria *Izaroren izarra*.
- Yolanda Arrieta Malaxetxebarria. *Txokolategia*.
- Kirmen Uribe. *Bilbao-New York-Bilbao* liburua-aren edizio berritua.
- Ana Urkiza. *Paperezko ahozapietan idatzitako ipuinak*.
- Ainhoa Elordi. *Bizirik nagoelako*.
- Iker Badiola. *Behin Zegama-Aizkorripin parte hartu nuen*.



ERREMENTARITZA

Aroztegi metalikoa
Galdaragintza
Burdینگintza artistikoa



T. 94 624 36 34 / Faxe: 94 684 03 69
burdingai@euskalnet.net / burdingaisl@euskalnet.net

Okamika Ind. 4. pab. 3 GIZABURUAGA (Bizkaia)

ANTARRI S.L.
IGELTSEROTZA

tel./faxe: 94 684 31 50
mobila: 696 215 334
antarrislamoroto@gmail.com

AMOROTO

ARRIZABALAGA
INMOBILIARIA

Juanjo Arrizabalaga
Guen kalea, 14 behe 94-616 84 34 MARKINA-XEMEIN

LIBURUDENDA ETA PAPERTEGIA
ARALDE BERRI
San Kristobal plaza, 22
LEKEITIO 94-603 42 16



Musikaz gozatzen eta musikaz gozarazten

MUSIKA // Musikariak ez ziren geldirik egon. Besteak beste, jendearen diru laguntzari esker, musika diskoa kaleratu zuen Denak, eta bideo klipa Incursedek —diskoa 2021erako aginduta—, Keu Agirretxeak *Geruzak* abestua eta bideoklipa estreinatu zituen, Brauliok

Braulio, Piztiakene diskografia osoa plataforma digitalean argiratu zuten, Jabi Patxon lekeitiarrak eta Haizea Martiartu markina-xemeindarrak lehen diskoa plazaratu zuten, eta Unai Egia musikari lekeitiarrak bakarkako bideari ekin zion eta diskoa atera.


Pantailetarako eskaintzak

ZINEA // Arantza Ibarrenen *Mi pequeño samurai* pelikula publikoaren saria jaso zuen Zinegoaken, eta bigarrena izan zen Alemaniako Perlem film jaialdian. Albiste gehiago ere sortu ziren ikus-entzunezkoen arloan: Eun Me 1'59'' proiektuan parte hartu zuen UrLur kofreografia ondarrutarrak, mundu mailako ekimena, Naia Arantzamendi ondarrutarraren *Sutan* lanak irabazi zuen Zineako I. Film Laburren gidoi lehiaketa eta Mutrikun *Ilargi guztiak*. *Todas las lunas* grabatu zuten.



Euskal wikipedia elikatzeko ardura hartuta

ONDARROA // Euskal wikipedia elikatzeko lehiaketan izena emanda, Ibai Muñiz ondarrutarrak sareko entziklopedian edukia gehitu zuen, herriko hainbat pasarte historiko eta pertsonaia batzuen bibliografia, hain zuzen, Bixtore Laka artistarena eta Imanol Oruemazaga abade, kultur eragile, politikari eta historialariarena.



BELAZAHAR

- Zure maskotarentzat behar duzun guztia
- Txakur ileapaindegia
- Albaitari kontsulta

94 684 06 71 • belazahar@yahoo.es
SANTA KATALINA IBILBIDEA • LEKEITIO

OPTIMUS
BURUNDIENGI FIDAGARRI ETA HURGI AK

BADIOLA



ordutegia: 9:00-13:30/17:00-20:00

Artibai kalea, 8 ONDARROA

tf.-faxe 94 683 22 07

leue2012@hotmail.es

EUSKO LEGBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

EH Bildu izan zen alderdirik bozkatuena
EAEko hauteskundeetan eskualdean

Indar korrelazioa » Jeltzaleek botoak galdu zituzten, eta koalizio abertzaleak gora egin zuen; 31 jesarleku lortuta, EAJ gailendu zen Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan

EMAITZAK »

Herria.	EH Bildu		EAJ		Elkarrekin		Equo		Zuriak	Baliogabeak	Abstentzioa	
					Podemos-IU*	PSE-EE	PP+Cs**	Berdeak***				
Amoroto	121	113	117	121	3 4	0 0	0 0	0 4	1 0	2 0	%26,51	%28,14
Aulesti	230	234	102	123	5 5	2 0	0 1	1 15	2 0	0 4	%34,10	%30,00
Berriatua	237	277	246	258	7 20	7 3	1 3	2 20	3 2	1 0	%40,49	%34,74
Etxebarría	200	178	216	262	6 27	4 3	0 6	2 27	6 2	1 0	%25,98	%20,79
Gizaburuaga	67	69	32	32	6 10	0 0	0 1	0 10	2 0	0 3	%27,21	%28,13
Ispaster	163	167	212	218	13 27	6 0	1 7	0 27	1 3	4 0	%24,77	%21,68
Lekeitio	1.877	1.875	1.693	1.824	106 246	64 54	27 50	31 246	24 14	8 10	%33,00	%28,28
Markina-Xemein	979	902	1.060	1.193	73 168	36 32	21 40	22 168	13 9	16 6	%38,31	%35,05
Mendexa	110	114	116	134	11 16	2 5	0 2	4 16	1 1	3 5	%28,24	%23,9
Munitibar	138	121	99	119	9 11	2 0	0 0	1 11	1 3	1 0	%35,84	%29,75
Mutriku	1.142	1.051	1.019	1.142	84 229	64 58	43 89	29 229	32 23	19 16	%39,24	%35,51
Ondarroa	2.158	2.057	1.580	1.646	147 366	75 74	66 140	13 366	26 30	22 21	%39,07	%36,64
Ziortza-Bolibar	117	137	95	110	4 3	1 1	2 3	0 3	1 1	2 0	%33,73	%29,48
GUZTIRA	7.539	7.295	6.587	7.182	474 1.142	263 230	161 457	105 1.142	113 88	79 65	%32,81	%29,40

*Elkarrekin Podemosen hautagaitzan aurkeztu zen Equo 2016ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan. ***2020koetan bere hautagaitza propioa aurkeztu du Equok. **PP eta Ciudadanos alderdiek hautagaitza bana izan zuten 2016ko hauteskundeetan; koalizioan aurkeztu ziren domekan. ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA



Etxaniz, Xenki, Murgi eta Aldarondo gogoan hartuta

LEA-ARTIBAI //Ondarroan, plakak jarri zituzten Angel Etxaniz eta Fran Aldarondoren omenez. Etxaniz 1980ko abuztuaren 30ean hil zuten, eta Aldarondo 1979ko urriaren 17an. Lekeitio Xenki eta Murgi izan zituzten gogoan irailaren 2an. Guardia Zibilak 1972an hil zituen.

Enpresentzako
BERRIKUNTZA PROZESUEN
EZARPENA / ITAZARO.COM /
OPEN INNOVATION DINAMIKAK
KUDEAKETA AURRERATUKO
ZERBITZUAK

azaro
fundazioa

ENPRESA
BERRIEN
SORRERA

NEGOZIO
AUKERA
BERRIEN
IDENTIFIKAZIOA

Lea-Artibaiko garapenarekin konprometiturik

94 616 91 72 azaro@azarofundazioa.com www.azarofundazioa.com

AUTOS BERRITHU
Aukerako kotxeak

Tel. 94-613 99 90
Mug. 695 77 66 61
605 12 73 22

ocasionberritu@gmail.com
Errebera auzoa, 13 behea
48710 BERRIATUA



Arantza Zulueta kartzelatik irten zen zigorra beteta

LEKEITIO // Arantza Zulueta otsailaren 11n utzi zuten libre, 11/13 auziko epaiketako zigor osoa bete ostean. 47 lagunen aurkako epaiketa hartan bera-ri eta Jon Enparantzari baino ez zieten kartzela zigorra ezarri, eta biak 2019ko irailaren 30etik zeuden espetxean.

'Herriko tabernen' auzia exekutatzen hasi ziren

LEA-ARTIBAI // Auzitegi Nazionala hasi zen 'herriko tabernen' sententzia exekutatzen. Modu horretara, Lekeitioko Galarrena eta Ondarroako Uxolaren kontuetan esku hartu zuen.

EAJk pintaketak salatu zituen

LEKEITIO // Pintaketak egin zituzten Ernaireren eta Gaztediaren izenean, eta horren aurrean Lekeitioko EAJk ekintza salatu eta jokaera horiek «onartezinak eta gaitzesgarriak» direla esan zuen. «Ekintzok batzuen ahulezia politikoa eta kultura demokratiko falta erakusten dute», adierazi zuen.



Izan bideak presoan aldarria kalean mantendu zuen

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Sare euskal preso, errefuxiatu eta deportatuen aldeko taldeak Izan bidea ekimena jarri zuen abian, presoak etxeratzeko urratsak eman beharra aldarrikatzeko. Herririk herri, eskaera hori irudikatzen proposamenak bultzatu nahi

izan zituzten, nahiz eta denak gauzatzea posible izan ez pandemiaren eraginez. Hain zuzen ere, gogorarazi zuten itxialadi garaian presoan egoera gogortu egin zela. «Euskal preso eta iheslaririk gabeko oraina eta etorkizuna» eraiki beharra nabarmendu zuten.

Kazetariak, berme eske euskaraz lan egin ahal izateko

EUSKARA // Euskal kazetaritzako profesionalek euskaraz lan egiteko bermea eskatu zioten agerraldi publikoan Jaurlaritzari, oraindik arduradunak aukeratzekotan zirela.



Hamaika Gara, erreferendum eske

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Etorkizun politikoa erreferendum bidez erabakitzearen aldeko Hamaika Gara egitasmoak Euskal Herriaren puntu gorria burujabetzaren mapan kokatzera deitu zuen. Arrazoi horregatik, erreferenduma aldarrikatu zuen, eta hura babesteko, sinadura bilketa abiatu.

www.aulesti.eus

Donibane enparantza 1 • **AULESTI**
ldazkaria@aulesti.eus • 94 627 9006

euskaraz bizi nahi dut

AULESTIKO Udala



Itsasoko plastiko hondarrak berrerabiltzea asmo

LEA-ARTIBAI // Leartiker zentro teknologikoak eta Azaro Fundazioak, lankidetzan, proiektu bat aurkeztu zuten itsasoko plastiko hondarrak berrerabiltzeko estrategien inguruan, Circularseas, hiru urterako eta Europako beste herrialde batzuetako elkarteekin batera talde lanean.



Antxoa kuota bera mantentzea erabaki zuten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Antxoa kuota beragaz jarraitu zuten arrantzontzi tradizionalek. Horrenbestez, kanpainen indarrean mantendu zituzten aurreko urteotako neurri gehienak. Hori bai, baimendutako kuotan al daketa handirik egon ez arren, pelagikoekin

zihardutenek ohi baino arinago hasi zuten arrantza, hain zuzen ere, sei aste aurretik: 2020an teknika tradizionalerako martxoaren 1ean ekin zioten zereginari eta pelagikoekin apirilaren 15ean. Alde bien arteko batzarrean hartu ziren erabakiak.




Irakaskuntzak greba deitu zuen

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Hezkuntza zentroetan greba deitu zuen gehiengo sindikalak. Langileen, ikasleen zein familien %65ak jarraitu zuen sindikatuen arabera, eta %45,2k Hezkuntza Sailaren esanetan. Aurrez aurreko ikasturte segurua eta adostua bermatzeko neurriak aldarrikatu zituzten.



Industria berpizteko ituna sinatu zuten

MUTRIKU // railean, industria sarearen lehiakortasuna bermatzeko ituna sinatu zuten Debabarreneneko eta Debagoieneko enpresa elkarteek. Alde biek esan zuten «aliantza estrategikoa» zela, eta barrutia «doitasun teknologien erreferente modura» kokatzen lagunduko zuela.





Jon Fernandezek 'Pentsioen geroa' liburua aurkeztu zuen

ONDARROA // Jon Fernandez kazetariak *Pentsioen geroa* liburua aurkeztu zuen, Berria, Elkar eta Jakin fundazioaren Aleak bildumaren baitan. Ondarrutarrak pentsio sistema publikoaren krisia ulertzeko gakoak eta erronkak izan zituen aztergai.



Maiatzaren Lehena, etxealdian ere bai

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Osasun krisiaren eraginez protesta jendetsuak egin ezin izan bazituzten ere, sindikatuek Maiatzaren Leheneko aldarrikapenak gogoan hartu zituzten. Sare sozialen bidez edo etxeetako leihoak eta balkoiak zein lan espazioak ho-

rretarako erabilia, langile klasearen harrotasuna nabarmendu nahi izan zuten. Bakoi-tzak eguna bere erara antolatu izanagatik, euskal gehiengo sindikalak (LAB, ELA, ESK, Steilas, Hiru eta Etxalde) indarrak batu eta irudi komun bera partekatu nahi izan zuten.



Lanean osasuna zaintzeko berme eske

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Azaroaren 28an, Lan Osasunaren Nazioarteko Egunaren harira, lantokien aurrean mobilizatza deitu zuen euskal gehiengo sindikalak. «Langileak euren osasuna bermatzeko baliabide nahikorik barik lan egi-tera behartzen dituzte», salatu zuten.

Ostalaritzaren kalteak arintzeko neurriak agindu ziren

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Jaurkitutako 30 milioi euroko diru laguntza programa iragarri zuen taberna eta jate-txeentzat, baliogarri izango zitzaizkielakoan jarduerari eta enpleguari eusteko eta ekonomia galerak arintzeko.

Abeltzaintza eta nekazaritza lagundu zuten

LEA ARTIBAI // Bizkaiko Foru Aldundiak 415.000 euro bideratu zituen nekazaritza eta abeltzaintza sektoreetara, COVID-19ak eragindako krisiari aurre egiteko.

Lehen sektorea indartzeko ahaleginean

ISPASTER // Azoka egin egin zuten, baina postu hutsak baino ez zituzten jarri, hau da, aparteko egitaraurik gabe. Hori bai, lehen sektoreak bultzada behar zuela eta, hitzorduari eustea erabaki zuen udalak. Hamabi erakusmahaitan, baserriko produktuak eta artisautza gaiak eskuratu ahal izan ziren.

ATEUN

HARATEGIA-URDAITEGIA

etorri eta gozatu
gure baserriko okelaz
ZERBITZU PAREGABEA

Iparragirre 10 · ONDARROA
94 683 35 23 / 689 783 896

Artibai, 32 · MARKINA-XEMEIN
94 616 76 69 / 689 587 706

Javier Zubizarreta Gomis

Arkitektura zerbitzuak
Atea 30. behe 2. Lekeitio

☎ 616 143 092
✉ jzg.arkitektura@gmail.com

EIT txostenak - ziurtagiri energetikoak - erreformak- proiektuak

Maila ona txinga eroate eta lasto botatze lehiaketetan

ONDARROA //Jabier eta Ane Urresti aita-alabek —argazkian— hirugarren egin zuten Euskal Herriko txinga eroate txapelketan, bakoitzak bere mailan, Araban. Mikel Agirre ondarrutarrak zilarra lortu zuen Dimako Bizkaiko Lasto Botatze neurketan.



Zesta-punta zirkuituan, Markina-Xemein abiapuntu

LEA-ARTIBAI //Zesta-puntazaleek hitzordu garrantzitsua eduki zuten. Izan ere, COVID-19aren eraginez formatua eta egutegia aldatu arren, eutsi egin zioten Jai Alai World Tour zesta-punta zirkuituari. Jokalarien artean zeuden Aritz Erkiaga ispasterterra eta

Ibon Aldazabal berriatuarra. Markina-Xemeinen izan zen lehen aurrez aurrekoa, uztailaren 10ean, Masters Serieagaz. Munduko Pilota Batzarreko presidente Fernando Azkaratek nabarmendu zuen zailtasunak zailtasun maila handiko zirkuitua osatu zutela.

Ondarrutarrak, Bizkaiko txapelketan nagusi

LEA-ARTIBAI //Ondarroako emakume taldeak lortu zuen Bizkaiko traineru txapelketa, bigarrenak (Lutxanak) baino 22 segundo gutxiago eginda (11:54:27 minutu). Isuntza hirugarrena izan zen. Bestalde, Edrigo Aranburu lekeitiarra Bizkaiko Arraun Federakuntzako buru izendatu zuten, beste lau urterako.

Saizar eta Aginaga, Euskal Herriko rallyan bizkorrenak

LEA-ARTIBAI //Aitor Saizar pilotu berriatuarrak eta Gorka Aginaga kopilotu ondarrutarrak 2020ko Euskal Herriko Rally Txapelketa irabazi zuten, Peugeot 207 Super 2000 auto estreinatu berriagaz.

Orkatz Beitiak errekor berria ezarri zuen

ONDARRROA //Orkatz Beitia atletak 7,06 marka lortu zuen 60 metroko lasterketan pista estaliko probetan. Horrela, Espainiako errekor berria ezarri zuen M40 kategorian.



Aizkolariek uko egin zioten jokatzeari

MUTRIKU //Hainbat aizkolariek Euskal Herriko Txapelketan ez parte hartzea erabaki zuten, federazioarekiko desadostasunengatik, tartean Ugaitz eta Aratz Mugerza mutrikuarrek, eta euren kabuz beste txapelketa bat antolatuko zutela iragarri. Federazioari «utzikeria» leporatu zioten.

Igeltseritza, gremioen koordinaketa, bame diseinua, proiektuak 3Dn, eraberritze lanak...

ASTIGARRAGA ANAIAK S.L.U.
Txurruka Tteak 28, Behea
20830 Mutriku
943604086
astigarragamutriku@outlook.es

Artibai
hagin klinika
MEDIKU-ODONTOLOGOA
INPLANTEAK
PADI + IMQ
Artibai, 6
MARKINA-XEMEIN
94 616 61 60



◎ Biztanleak

31.715

■ Lea-Artibai eta Mutriku.

Horretxenbeste biztanle daude berton erroldatuta. Gehiago dira hil direnak jaio direnak baino: 170 lagun jaio dira, eta 275 hil.

◎ Langabetuak

1.509

■ Lea-Artibai eta Mutriku.

2020ko urrira arte, Lea-Artibai eta Mutrikuko langabetu kopurua. 2019an baino 368 gehiago.

■ Herri handienetan.

Ondarroan, 492 langabe; Lekeition, 317; Markina-Xemeinen, 245 eta Mutriku, 237.

■ Langabezia, goruntz.

2014an, 1.742 langabetu zeuden; 2015ean, 1.523; 2016an, 1.312; 2017an, 1.190; 2018an, 1.243 eta 2019an 1.141. Ehunekotan, Ondarroan daude langabetu gehien, %11,97; eta Gizaburuagan gutxien, %3,8.

■ Joera.

2013an, langabeziak beheranzko joera hartu zuen, eta 2018an gorakoa. 2019an, berriro behera egin zuen kopuruak, eta aurtien nabarmen gora.

■ HERRIZ HERRI. AZAROAREN 30ERA ARTE

HERRIAK	Jaiotzak	Heriotzak	Errolda
Amoroto	3	6	416
Aulesti	3	16	646
Berriatua	5	11	1.244
Etxebarría	2	8	789
Gizaburuaga	0	1	204
Ispaster	7	7	763
Lekeio	33	60	7.367
Markina-Xemein	39	44	5.111
Mendexa	2	3	433
Munitibar	2	1	498
Mutriku	24	41	5.315
Ondarroa	46	74	8.514
Ziortza-Bolibar	4	3	415
GUZTIRA	170	275	31.715



APALLU

ITURGINTZA

- ITURGINTZA
- BEROKUNTZA
- GASA
- AIRE EGOKITUA
- ENERGIA
- BERRIZTAGARRIAK
- DENETARIKO
- ZAHARBERRITZEAK



San Agustin, 3 MUTRIKU
600 316 381 • 943 02 98 61
apallu@apallu.es / www.apallu.es

ANTZOMENDI

Eraiketak

Angel Astigarraga

Antzomendi baserria
Mijoa auzoa 2
antzomendi@hotmail.com

670 214514
Faxa: 943 603764



Hamen Bertokoa

BERTOKO PRODUKTUAK EROSI,
OSASUNTSU ETA HOBETO BIZI!



Eman zure babesa
eta Egin kide!



www.hamenbertokoa.eus

EKOIZLEAK

BARAZKIAK:

- Alleri. Berriatua
619 427 602
- Altzoa. Amoroto
609 310 791
- Barrenetxe Kooperatiba.
Etxebarría 94 6168143
- Ekoalboraz. Berriatua
688 613 156/943 60 41 34
- Gabixola Agroekologia.
Markina-Xemein (Amallo)
605 963 309
- Kostabi. Amoroto (Oleta)
688 642 741

ESNEKIAK:

- Barroeta gaztak.
Markina-Xemein
697 785 925
- Baskaran.
Bariñako esnekixek.
Markina-Xemein (Barinaga)
665 741 507/651 700 537
- Larruz gaztak.
Markina-Xemein (Meabe)
625 022 559

EZTIA:

- Gure Eztia.
Markina-Xemein
619 401 413

OGIA/GOZOAK:

- Meabeko Ogixe.
Markina-Xemein (Meabe)
685 758 085
- Tahona Bikiak.
Gizaburuaga,
94 624 32 80/690 622 439

FRUTA:

- Gaizka Idoeta frutak.
Lekeitio 618 554 621

KONTSERBAK ETA EDARIAK:

- Laneko Kooperatiba.
Gizaburuaga 94 684 20 26

SAGARDOA/TXAKOLINA:

- Axpe. Markina-Xemein
(Atxondoa) 655 734 625

ARRAUTZAK:

- Bakikureta. Gizaburuaga
673 499 941

JAKI PRESTATUAK:

- Elikatu. Amoroto (Oleta)
94 684 13 59

HARAGIAK:

- Aboro Baserria.
660 056 872

MERKATARIAK

AULESTI

Josune. 94 627 90 20

BERRIATUA

Sagarra Mantzana.
639 605 126

LEKEITIO

Azoka. 94 684 00 60
Bideitzen. 94 624 31 84
Eguzkilore. 665 744 215
Kasumay. 632 774 547
Tahona Bikiak. 94 624 32 80

MARKINA-XEMEIN

Alarabi. 94 616 74 43
Ituarte. 94 616 62 30

ONDARROA

Bolin. 94 683 02 54
Tahona Bikiak. 688 743 297
Sustrai. 94 683 07 62
Urresti. 696 649 641
Zaton. 94 683 17 83

HARAGITEGIAK

ONDARROA

Ateun. 94 683 35 23
Eguzki. 94 683 03 47
Patiño. 94 683 09 64
Zaton. 94 683 17 83

LEKEITIO

Aldazabal. 94 684 04 57
Goikoetxea. 94 684 04 06

MARKINA-XEMEIN

Ateun. 94 616 76 69
Guenaga. 94 616 64 54

OSTALARIAK

TABERNAK

LEKEITIO

Otoio. 94 406 08 87
MARKINA-XEMEIN
Uhagon.
665 212 689 (Kafetegia)

MENDEXA

Gure Kabia. 627 145 360

TABERNA-JATETXEA

AMOROTO

Epermendi. 94 684 17 62
Ibai-gane. 94 684 13 59

ISPASTER

Herriko Taberna.
94 684 07 60

ETXEBARRIA

Antsotegi. 94 616 91 00
Olaia. 94 616 63 94

LEKEITIO

Egaña. 94 684 01 03
Silken Uribarren Jauregia.
94 624 35 83

Trinkete. 94 684 41 75

MENDEXA

Leagi. 608 513 003

ONDARROA

Beikozini. 94 683 28 99
Ondarroako Batzokia.
94 683 26 65

Sutargi. 94 683 22 58

ZIORTZA-BOLIBAR

Armola. 94 616 81 79
Kanpape. 94 616 41 16